

Leitzako hizkera adierazkorra: biraoak

BITTORIO LIZARRAGA*

SARRERA

Maldizio, juramentu, birao eta *borro*. Hitz hauexek erabiltzen dira euskarra honetan hitz eta esapide zakarrak izendatzeko. Badute alderik, ordea, esanahiari, eta bereziki, erabilerari dagokionean.

Maldizio, juramentu eta *birao* sinonimoak dira. *-ka ari* egitura erabiltzen da usuenik (*maldizioka ari, juramentuka ari, biraoka ari*). Erabileraren maiztasunaren alderditik, *maldizio* eta *juramentu* askoz ere gehiago erabiltzen dira; *birao*, berriz, hizkera maila jantziagoa azaldu nahi duenaren mintzoan baizik ez da entzuten, dela gaztea, dela adin handikoa. Gutxitan, ordea; bakan esanen genuke. *Borro*-ak *bota* hitza darama berarekin; *borroa bota* esapidea osatzen dute. *Borroa botatzea* norbaitentzat gaizki nahi izatea da. Tankera honetako esapideek, ia beti atxikita dute maldizio-biraoren bat:

Lepoa autsiko al dok alu zerri zikiñ orrek!

‘Lepoa hautsiko ahal duk alu zerri zikin horrek’

Borroak botatzeko erak ez ditugu aipatu lan honetan. Biraoren sailkapen moduko bat egiten saiatu gara. Sailkapen zabala egin dugu, harridurazkoetatik abiatu eta jendea iraintzeko erabiltzen diren hitz eta esapideetaraino. Hauetako zenbait arina da oso; irudi luke ez direla izendapen horren barrenean sartzeko modukoak. Badira, ordea, biraoen gogortasun mailak. Bada baita ere, haserrea edo harridura adierazteko, behin ere, zakarkeria handiegirik esanen ez lukeen hiztu-

* Euskal Filologian lizentziatua eta irakaslea

nik. Hala eta guzi ere, hiztun hauek badute hitz eta esapide sail bat egokieran, gisa horretako egoeretan erabiltzeko. Horiek ere sartu ditugu.

Lana biraoen adieretan oinarritu dugu. Ez da guzia zehatza sailkapena, birao batek adiera bakarra baino gehiago izan dezakeelako askotan, eta zail izaten delakoz biraoak hartzen duen alor semantiko guzia mugatzea (ñabar-dura, konnotazio...).

Birao mailak badirela aipatu dugu arestian, bai baitira arinak, tartekoak (erdi-mailakoak deituko ditugu) eta gogorrak. Alabaina, birao bera maila batetik bestera irago daiteke haserrearen eta barne-sentimenduaren arabera. *Au zerrie!* 'hau zerria!' bizkarrean joaz eta barremurrirtza eginez esatea, eta *zerrie, ez beste zerrie!!*, hortzak estutuz, ukabila erakutsiz eta oihuka esatea, arrunt desberdina da. Ezin esanen dugu bada, bi esaldietan agertu den *zerri* biraoak adiera bera duela: lehenbizikoa *au potroa!*-ren sinonimoa da; bigarrena, berriz, *putakume* edo *alu*-rena.

Bestalde, biraoen erabileraren erakusgarriak azaltzeko, idatzizko iturrietara eta ahozkoetara jo dugu. Idatzizkoetan bereiziko ditugu literarioak eta popularrak. Orixeren lana hartu dugu literarioetan; Uitzin urte askoan bizitua izanik, inguru honetako euskara erabiltzen baitzuen (Leitzako euskararen berri ongi zekien). Popularretan, berriz, Plazaola aldizkariko idatziak aztertu ditugu. Aldizkari hau urtean bitan argitaratu izan dute zenbaitetan: inauterietan eta herriko bestetan. Gaur egun, ordea, herriko besta aurretxoan besterik ez da argitaratzen.

Ahozkoetan Patziku Perurenak Leitzan kokatu lanak hartu ditugu. Lan horietan leitzar askoren ahozko testigantzak daude jasoak eta transkribatuta emanak. Guk hala eman ditugu, berriemailearen izen-deiturak ondoan paratuta.

Iturriak agortu zaizkigunean, gerok eta geure inguru hurbilekoak izan gara berriemaile. Gogoan hartu behar da biraoak hizketa bizi eta bat batekoa duela euskarri, eta ezin konta ahala testuinguruetan erabil daitezkeela.

I. IRAIN-BIRAOEN EZAUGARRIAK

Tankera honetako hitz eta esapideak komunikazio eta harreman arruntentzako hausturaren azalpen mota bat dira. Kortesia- edo gizalegezko arauen urraketa barrenean kokatzen dira. Irainak eta biraoak mintzoko bortxa arierak dira, osagai estralinguistiko zenbaitekin batera agertzen direnak: kinekikoak, ahots bolumenaren igoera handiegia, batzuetan indarkeria... Testuinguru honetan kokaturik, osagai linguistiko hutsa du lan honek aztergai.

Esatea badugu, irain-biraoena, batez ere, lexikoari dagokion sailaren azpisail bat dela. Hala ere, hiztunak gramatikak eskaintzen dizkion baliabide guziak erabiltzen ditu. Beraz, gutxi-asko, gramatikaren osagai bakoitzak hitz eta esapide hauen eraikieran duen zeregina azaltzen saiatuko gara.

Gauzak horrela, badira gogoan hartu beharreko ezaugarri soziolinguistikoak ere. Hauen harian, hiztunen arteko harremanak, elkarren arteko botere auziak, mintzakideen sexuak eta beste eragingarri sozial zenbaitek, gramatikaren osagaiek aukeran paratzen dituzten baliabide desberdinak hautatzea mugatzen dute.

I.I. Ezaugarri soziolinguistikoez zenbait ñabardura

Irain-biraoen hautaketan eta haien mailaren neurrian agintzen duten eragingarririk garrantzizkoenak honakoak dira: adina, sexua, maila soziala eta harreman mota.

Alor honetako azterketa sakonik ez dugu egin eta beste noizbaiterako irekia gelditzen da ate hau. Baina, aipatuko dugu hiztun gazteen mintzoan irain-biraoen erabileraren maiztasuna handia dela. Adin hauetan ere, arruntagoa izaten da biraorik gogorrenak eta mailarik gorenekoak erabiltzea: *mekaben dios!*, *kaka ostiat!*, *putakumea!*... Beste aldera, adiskidetasun ezaugarri dira beste edozein egoeratan irain gogorrak direnak eta, adin helduagoetan begiratuago direnak: *zerria*, *alua*, *kabrona*... Adin horietan, orain arteraino gizonezkoen barruti itxia izan den arren, egun bi sexueta jendeak berdintsu jokatzen duela esan genezake, datu estatistiko zehatzik ez badugu ere. Hala ere, gizonezkoen solasean erabiltzen dira biraorik zakarrenak. Adin helduagoetan, gizonezko-emakumezko aldea nabariagoa da. Zenbat eta adinez gorago, urriago dira sexuari eta erlijioari aipamen zuzena egiten dieten irainak. Adiera metaforikoa dutenak eta hizkuntzan erroturik daudenak izaten dira erabilienak¹.

Hizkuntza minorizatua izateak ere badu honetan guzian eragin zuzena: oro har, euskaldunak erdarara jotzen du irain bortitzak eta goreneko mailakoak esaterakoan.

I.II. Lexiko-semantikoak

Lexikoian bada hitz andana bat irain-biraoen saileko bakarra dena. Jatorrizko adiera galdurik, edo, beste adierarik baldin bazuten harenik gabe, adiera bakarreko dira egun. Beraz, hiztegiko sail horretan, biraotan, besterik ez dira ageri. Beste sail batekoak dira zabaltze semantikoaz, bilakabide metaforikoaren bitartez ekarriak. Hauetako asko lexikalizazio bidean izanagatik, jatorrizko adierari eusten diote hein handian. Sail urria osatzen dute onomatopeikoak.

1. Hiztegiaren irain-birao adiera besterik ez dutenak

Luzaroan hedatua egon den ustea da euskara biraorik gabeko hizkuntza dela: *txukuna*, *garbia*, *biraorikan ez duen² hizkuntza garbia*... Euskaldun askok bere hizkuntzaz duen gogo irudipenean, irainak eta batez ere, biraok erdaratik hartutakoak baizik ez dira. Ez da hori horrela eta hemen hiru azpi-sailetan banatu ditugu: a) euskararen jatorrizkoak eta aspaldian errotutakoak; b) maileguak; c) kalkoak:

¹Antzeko ondorioak aurkitu ditugu Valentziako hiztun komunitate batean egindako irain-biraoen gaineko lan soziolinguistikoko batean (Gomez: 117-118): emakumezkoek bakanago erabiltzen dituzte irain-biraoak eta, maila beheragokoak, hala ere, gazteen artean bi sexuen arteko aldeak murriztu egiten dira; adin guzietan ere sexuari erreferentzia egiten diotenak ugariak diren arren, adineko jendearen mintzoan aldaera ugariagoz baliatzen dira eta, forma leunagoak erabiltzera jotzen dute.

² *Aitorren hizkuntza zaharra* kantatik hartutako puskatxo.

a) *Alporja, alu, arraio, ergel, ernegatu, ereta, koñe, kaskailu, kasketoso, kas-kurrio, madarikatu, memelo, milika, muker, tentel, tontoilo, tortoilo tenker, txoro, zarpail, zepel, zipotz, zital, ziziriku, zontzoilo*

b) Mailegutaz ari garela, gaztelaniatik jasotakoez ari gara honako honetan. Hurbilketa kulturalak, bi hizkuntzen arteko ukipenak eta euskararen mendeko egoerak, izugarri hazten dute sail hau.

Sala, M.: 254

(...) se refiere al hecho de que los términos afectivos manifiestan una tendencia a perder su fuerza expresiva. Weinreich (1953: 58) habla de zonas onomasiológicas de “baja presión” allá donde hay una constante de sinónimos. En estas zonas, una de las fuentes de palabras de mayor expresividad son las lenguas extranjeras y de ahí que dichas palabras se prefieran a las autóctonas. El fenómeno es más frecuente en el habla de los bilingües, que tienen a su alcance los elementos de la lengua secundaria, pero no falta en el habla de los monolingües.

Haztea kopuruzkoa izateaz gainera, kalitatezkoa da nabarmenen. Mailegu hauetako zenbait mailarik gorenean, eta beraz, gogorrean aurkitzen dira. Gizartean tabutako hartzen diren esparruetan sarrera bortitza egiten dute. Erljioa, sexua eta ohorea dituzte, bereziki, erreferentziatako. Arruntean, gehienek jatorrizko adierari eta mailari eusten diete.

Sapir: 220

El tipo más sencillo de influencia que una lengua puede ejercer sobre otra es el “préstamo” de palabras. Cuando ocurre un préstamo cultural hay siempre la posibilidad de que se adopten igualmente las palabras con él asociadas.

Dios, (e)rredios, mekaben dios (labirjen, laputa...) eta makaben guziak, koñ(e)lo, kristo, joder, jolin, komoaidios, laostia, laostia, laputa, kabron, marikon, ijoputa, txulo, ministro, obispo, beleno, latoso, enbustero/a, bulloso, mañoso, bandido, putanero, matxorra, tipo, miserable, traidore, tonto, kalamidade

c) Bilakaera honen bitartez hizkuntza arrotz bateko hitza, mailegaturik hartu beharrean, hitz hori erdutako hartzen du hizkuntza hartzaileak, adiera bereko hitza eraikitzeke. Azken buruan, itzulpen lana egiten du hizkuntza hartzaileak.

Askotan oso osorik morfemaz morfema itzultzen da; beste batzuetan, berriaz, morfemaren bat besterik ez da itzultzen eta besteak jatorrizko hizkuntzaren forma berean mantentzen dira. Adierari dagokionez, jatorrizko hizkuntzan zutenari eusten diote gehienetan. Kalko lexikoez gainera, kalko sintaktikoak ere badira, alegia, perpaus baten egitura osoa hartu eta kopiatzen da osorik edo zatika.

- Kalko osoak

Izorrai, izorra daitzela, kakitzat, epurgarbitzalle, gaizkiesana, gaizkiyayo, gaizkiazi, lotsagabe, sugedorri, gaizkipentsatu, yendaje, marimutil, gaizkiesana, eskertzarreko

- Kalko partzialak

Izorrai la patria, jodiai, putakume, seitzak porkulo artzea, porkulo artzak

2. Bilakabide metaforikoaren³ bidez ekarriak

Oñederra: 58

Lexikoari dagokionean, hitz batzuk besteak baino adierazgarriagoak dira, aproposagoak erreferentzi esanahi soila baino gehiago adierazteko. Honelako hitzen multzoak ez dira berdinak izaten hizkuntza guztietan.

Sail honetako hitzetan era askotako bilakaera metaforikoak aurkitzen dira. Andana bat munduaz dugun irudikatze sistemaren isla da. Irain hartzailak irain igorleak egozten dion irainaren ezaugarriren bat du atxikirik. Animalien azpisailekoetan, *astoak* lan gogorraren irudipena dakar gure gogora, baina, irudipen horrek berak adimen eskasia ere gogoarazten digu, ezen, gure kulturan lan gogor eta itsuak ez baitu argitasun handirik adierazten. Itxurak zerrenda handia ematen du: *gaztaren* borobilak buruaren irudia dakar, eta burua gazta bihurtzen da. Balioaren arabera neurtzen dira gauzak eta pertsonak: *babalastoak tentelak* adina balio du, deus ez alegia.

Kopururik handiena gorputz atalek, animalien izenek eta landareenak dute.

a) Gorputz atalak

Buru(handi), hortz(makets), hanka(iher), lepa(iher), esku(luze), ipur(dantzari), tripa(ustel), potro(so), gibel(handi), izipu(handi) kopeta(beltz), mutur(oker), mizto, belarri(handi), sudur(handi), begi(exkel), mingain(motz), mingain(arin), zalkor, maskuri, miko, moko

b) Animalien izenak

Zerri, asto, axeri, bare, zozo, kuku, zakur, otso, basapizti, betizu, pizti, sugegorri, ollo, ontza, ziraun, ganbelu, zorri, zorri(zu), akalamendi, kattakume, azinda, matxorra

c) Landareenak:

Otoporru, azaburu, babalasto, babalore, azalore, artaburu, txotx, lapaitz, pipermorro, astalikardo, arbilore

d) Gorputz isuri eta hondakinak

Muki(zu), kaka (kaka(zu), kak(ero), kaka(zarra), kakitzat, kak(eri)), pix(ontzi), larde(zu), makar(zu), zoldazu

e) Lanabesak eta ontziak

Segapoto, mallu, kirten, piperpoto, eltze, kaiku, mako, kaferrota, talaka, zintzarri, bost(ortzelari), ari(albino), ziri(punta), zaato, fardel, zakuto

f) Pertsonaiak eta izen bereziak

()antonio, dio(s), Franko, Kitolis, jainkoa, jito, Judas, Mari(), ministro, obispo, orantzaro, ()patxiku, San Pedro, San Jurjo, Santa Klara, Txanbelain

g) Talde etnikoak

Jito, turko, moro

³ Metaforizaioa Lyons-en (419) zentzu honetan erabiltzen dugu: “El más importante de estos principios fue la metáfora (transferencia), basada en el vínculo natural que existe entre el referente primario y el referente secundario al cual se aplicaba la palabra. Pueden encontrarse ejemplos de ampliación metafórica en la aplicación de palabras tales como *boca, ojo, cabeza, cuello* y *pie* al cañón, a la cerradura, al alfiler, a la botella y a la montaña, respectivamente”.

h) Naturaren egoera txarra, gaitzak
Adingabe, ajetu, akal, erkitu, ero, kebratu, lehor, zambro, zeken

i) Mota guzietako izakiak
Aize, gorotz, odolki, onto, petral

3. Onomatopeikoak

Purrusti(oso), tartar, torropoton

I.III. Morfologikoak

Gramatikaren osagai honek elkarketa eta afijazioa ditu baliabiderik garantzizkoenak.

I.III.I. Elkarketa

1. Bahuvrîhi exozentriko elkarketak

a) Izena + izenondoa dira ugarienak

Azkuek “Compuestos posesivos”⁴ deitzen dituen hauen gainean dio, hitz hauen elkarketa *-dun* atzizkiaren galerak⁵ dakarrela:

Morfología II: 399

Como se ha indicado ya (? 584, B), cuando el sufijo *dun* se aplica a un adjetivo precedido de un sustantivo, su omisión da lugar a vocablos compuestos, que son precisamente estos: los posesivos.

Euskaran duten indarraz eta maiztasunaz, “Ellos son los más en boga”, esaten du Azkuek (Ibidem).

Erabilera handikoak eta oso emankorrak dira (LEF batzordea: 149). Irain-biraoen sailean, bereziki irainenean, hagitz sail oparoa da izen bizidunei besterik ez baitzaizkie eranstean izenondo hauek; gehienetan pertsoneri eta gutxiagotan animaliei (Ibidem: 150).

Gorputzaren atalen azpisailekoak eta haiei erreferentzia egiten dieten objektuenak dira ugarienak:

Neska begiexkela, gizon barrabilaundi... txoriburu, eltzeaundi, gaztaundi, mingainarin, epurtoker, lepamotz, ankoker, mutur(oker/luzel/motz/laundi), hortzaundi, motzaundi, burugogor, tripaundi, eskuzikin, aztalier, mingainarin, mingaintzikin

2. Elkarte sintetikoak

Izena + aditzetik eratorritako izen egiturakoak dira hona ekarri ditugun gehienak (LEF batzordea: 29). Esanahiaren aldetik, izenek eta aditzek adierazten duten ekintzaren egilea, egitea... da ulertzen dena (Ibidem).

Sesioille, epurgarbitzalle, baztarnastalle, kakanastalle, lotsamangarri, gosepasatu, epurdantzari

aditzoin / partizipio + aditzoin / partizipio egiturakorik ere bada:
eamanekarri

⁴ Izen bera erabiltzen du Villasantek ere (1981: 18), baina, honek gramatikari indiarren izena, Bahuvrîhi, ere badakar izenburuaren azpian

⁵ Azkuerentzat (Morfología vasca II: 392) elkarketaren “arima” elipsian datza.

3. Atributu eta koordinaziozko elkarketak

Bi osagaien artean *den* aditz kopulatiboa para daitekeenean esaten da Atributu elkarketa dela (LEF: 77). Bi osagaiek maila berekoak baldin badira koordinazio elkarketa osatzen dutela esanzen dugu.

Ziribuztan, erokitolis, erokaskallu, txorokaskallu, zerriurdea

4. Asmo-elkarteak

Bigarren osagaia asmoa, joera, aiherra edo, adierazten duen elementuren bat dutenak (LEF: 103).

Andinai, dirugose, begigose, andiuste

5. Izaera-elkarteak

Elkarte hauetako lehenbiziko osagaia aditza izaten da. Joera adierazten ohi dute (LEF: 1121).

Esanerreza, fiakaitz

6. Bigarren osagaia *gabe* dutenak

Lotsabe, axolkabe, burugabe, biozkabe

Bada *gabe* hartzen dutenen artean elkarketa osotara burutzekoa dutenen azpisail bat, lehenbiziko osagaiak partitiboko atzizkia mantentzen baitu:

Gatzikabea, odolgabea eta odolikabea

7. Hitz-andana ihartuak

Zerbait izendatzeko, bi hitz edo gehiagoz osatu sintagma-eraikuntza da.

Hitz-andana lexema bakarrekoa da eta, elkarketaren bi osagaien jatorrizko lexemarik izan dela ere ez daki hiztunak.

Zipotz 'ziri motz'-etik heldu dela inor gutxi daki (LEF batzordea: 176). Hala ere, adibide hau hain zuzen, ihartze maila gorenean kokaturik dago. Hemen paratuko ditugunak ez dira denak ihartze maila berekoak.

Gizagaixo, gizajo, gizagaixto, erogaixto, txorogaixto, lanberri, lanpuxkar, aizeputz, aundiputz, arroputz, kaskarin, buruarin, txoroaize, ezinbizi, ezinsofrittu, arialbiño

8. Erdi + irain-biraoa

Oso erabilia eta emankorra da. Irain-biraoak samurtzea du funtzioa, nahiz eta maiz erabiltzen den esatera batek horrela dioen: *erdieroa ero osoa beño okerragoa emen da*

Hartzailearen adimena gutxiesten edo zalantzan paratzen duten hitz-biraoei atxikitzen zaie batez ere.

Erdiero, erditxoro, erdiasto, erdigizajo, erdiergel, erditonto, erdipizti, erdizo-zo, erdiume

Ironia tanta bat ere eransten die askotan:

Erdilisto, erdikasi, erdimediku, erdisorgin

I.III.II. Afjazioa

Morfologiaren atal honetan euskarán, gertatzen ohi den gisa, aurrizkiena da sailik urriena. Gai honi dagokionez, *basa-* eta *sasi-* ere aurrizkitako hartu ditugu, hizkuntzalarien artean erabateko adostasunik ez bada ere.

Basapizti, sasikume

Erre-

Re- aurrizki erromanikotik ekarria (Villasante: 51):
erredios, errekitolis

Atzizkiak

Jatorri erromanikoko atzizkiak dira emankorrenak. Erabilienak *-oso/ a* eta *-ero* dira; bien hala biak ere Azkuek (1969 I: 22) “de procedencia exótica” deitzen dituenen multzokoak. Multzo berean sartu zuen irain-biraoetan askoz erabilera urriagoko *-aje* atzizkia ere. Azken honekin eraikiak dira *yendaje* eta *jentillaje* irainak. Atzizki honek

-aia eman du hizkera batzuetan (*yendaia*).
*-oso/a*⁶

Pidal, M.: 226

-osus indica la posesión de una cualidad, o la posesión abundante como *anim-osus*, *form-osus*, y en romance *tranp-oso*, *olor-*, *caballer-*, *graci-*, *tardi-*: *quej-*.

Iparraldean *-os* aldaera du (*malizios*) (Villasante: 115). Erabilera handikoa da eta arrunt emankorra irain-biraoetan. Izenari eransten zaio atzizki hau. Ugaritasuna adierazten duen izenondoa eraikitzen da atzizki honen bitartez: izen + *oso/ a* = izenondoa.

Pantasio, temoso, espantoso, setoso, burloso, arraundioso

gezurtioso forma pleonastikoa ere bada

gezur + ti + oso

-ero

Pidal, M.: 234

El sufijo *-ariu* tiene además de estas formas popular, *-ero* y culta *-ario* (...) antiguo *mercadero*, moderno *mercader*

Hau ere izenari eransten zaio. Joera adierazten duen izenondoa eraikitzen da:

izen + *ero* = izenondoa

putanero, buztanero, zurrutero

-s gaztelaniako pluralgilea

Aspaldikoa da morfema honen erabilera gisa honetako formak sortzeko. Ikus XIX. Mendeko Leitzako gizaseme baten gainean Perurenak jasotako aipamena (Migel Zabaleta Lizarragak esana. Perurena, P., 1996: 488):

Bazen emen “Martin Makilles” esaten zioan bat. Bera, ni bezelaxeko ttiki bet zen, beño atte oso bizkorra emen tzun makil yokoan, ta arengatik esaten tzioan “Martin Makilles”.

Gaur egun haren ondorengoak Ezkurran bizi dira eta, “Makillasenak” izengoitiez ezagutzen dira.

Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* nobelako *Antiajus* pertsonaia lekuko.

⁶ *-osus* > *-os/ -oso/ -tsul/ -zul/ -zal/ -tza* (Segura, S. & Etxebarria, J.: 94).

⁷ *Belarritakos, antiajus, aitzakis, berandus. nearras, zakarras...*

Oso emankorra da. Edozein kategoriatako hitzari⁷ erantsita izenondo kategoria ematen dio. Jarrera, akatsa, ohitura, objekturen bat... hartzailearengan nabarmentzeko moduko edozein ezaugarriren gainean eraiki daiteke izenondoa atzizki hau erantsita.

espantus, marrus, oyus,

*-ilo*⁸

Atzizki erromanikoa hau urri samarra da tankera honetako hitzetan. Ttikigarria da.

astakillo

-nte

Hau ere erromanikoa da. Gaztelanian oso errotua.

Moliner, M.: 526

-nte. Terminación común a las tres formas “-ante, -ente, -iente”, sufijo de los derivados verbales llamados participios de presente o adjetivos-nombres de actor: ‘andante, repelente, pudiente, saliente’⁹

Oso hitz gutxitan aurkitzen da:

okasiente, nazkante

-zio

Jatorri erromanikoduna hau ere. Erabilera handikoa eta oso emankorra.

Villasante: 141

Es un sufijo de uso universal en la lengua, muy arraigado y muy fecundo por el alto número de voces en que se emplea.

Zepeltzio, ergeltzio, mozkortzio, moteltzio, melontzio

-on

Gaztelaniako *-on* handigarritik ekarria. Irainen batean aurkitzen dugu hau bera ere. Gaztelaniazkoaren tankeran mespretxu adiera eransten dio hartzen duen lexemari (Moliner, M: 564):

Zanpon, torropoton

Atzizkirik gehienek egilea, edo, beti ere, agente tasuna dute berekin. Lehen aipatuez gainera, hauek ageri dira: *-ari, gainkelari; -tsu* eta *-zu* atzizki beraren aldaerak. *-zu* aldaera da erabiliena hizkera honetan. Ugaritasuna adierazten du atzizki honek. *-tsu* hitzen batean edo bestean ageri bada ere, ondolan izanen du aukeran *-zu*: *aizetsu / aizezu, zoldazu, kakazu, temazu... -ska* ttikigarria hedapen handiko bizpahiru hitzetan aurkituko dugu: *eroska, mordoska*. *-pe* ere ageri da irain hitz batean, *leorpe* hain zuzen ere. ‘Azpian’ adiera duen atzizkia izanik, irudi du hedapen metaforikoz, lehorraren azpian, men-

⁸ Menéndez Pidal: 229. “El sufijo diminutivo se une al nombre a veces mediante una *-c*, cuyo origen es latino; la terminación diminutiva latina era *-lus* en los nombres de las dos primeras declinaciones, a la cual se anteponeía generalmente una *c* en los nombres de las otras tres, y como el vulgar sustituía a *-lus*, *?llus*, según queda dicho, antepuso la *c* también en éstos, y *navic?la* fue en latín imperial *navic?lla* de donde *navecilla*”.

⁹ “Así como de otros adjetivos semejantes que no proceden de verbos: ‘comediante, rimbombante, vergonzante’; y de nombres de empleo aplicados a la persona que ocupa, derivados especialmente verbos de la primera y tercera conjugación: ‘ayudante, escrivente, suplente’”.

dean adierazi nahi lukeela; lur lehorraren gisa, deus gutxi ematen duena, alegia.

Hitz elkartuei atxikita ikusi ditugu *-le*, *kakanastalle*, *bazternastalle*, eta adiera zabalekoa den *-garri*¹⁰, *nazkaarri*, *lotsamangarri*.

Azkue I: 135

Añádase que su ámbito semántico es, como el ámbito de la sombra, no bien determinado; pues vocablos hay en que significa “digno de ser...”, como *ikusgarri* digno de ser visto, y otros en que vale por “producto de...”. Por lo demás, es de mucho uso en todos los dialectos.

*-gaitz*¹¹ atzizkietan sartu dugu, nahiz eta izenondo beregain izaera bizi-bizirik duen hizkera honetan (*eguraldi gaitza*). Handitasun adiera, edota, neke, zailtasuna adierazten ohi du, honakoan bezala. Atzizki izaera duen aldetik, aditzari eranstean zaio:

fiakaitz

-anga atzizki ttikigarriaz osatu hitz-irain bat ere bada: *putinga*. Izenari eranstean zaio. Atzizki hau ez da ugaria hizkera honetan, ez eta ere euskara orokorrean.

Ibidem: 201

Anga. Vive en media docena vocablos de diversas procedencias. *Be-sanga* (AN, B G, L) literalmente “bracito” son las ramas gruesas que forman la cruz de un árbol; *luzanga* (B, BN) larguilucho (1), *moldanga* (B-aing) desmañado, *sardanga* (S) tenedor, *urdanga* (BN) marranilla, *zilanga* (BN-s) hoyuelo, *zuranga* (B) blanquecino”.

*-kondo*¹² atzizkiaz adibide asko ekarri ez badugu ere, oso emankorra da mesprezua adierazten duten izenondoetan (*frailekondo*, *apezkonko*, *ergelkondo*, *zepelkondo*...).

okerkondo

II. IRAIN-BIRAOEN INDARGARRIAK

Irain-biraoak denboraren iraganaz eta haren poderioz, indarra galduz jotzen dira eta ahitu egiten da jatorrizko erreferentearen tabu izaera. Hauen bortxa-mailari eusteko, bitarteko indargarriak erabili behar izaten ditu irain-birao igorleak. Hizkuntzaz kanpoko bitartekoak alde batera utzita (kineki-koak, ahots igoera bortitza...), hizkuntzaren barrengoak azalduko ditugu.

II.I. Fonologikoak

Fonemen indar artikulatorioa trinkotu (oso ongi ahoskatuta esan): *KA-KAZUE*, *ZOZOA*, *ZEPELA*, *ZERRIE*, *ERGELA*, *TXOROA*...

¹⁰ Villasantek (81) atzizki honen zentzu aktiboa azpimarratzen du.

¹¹ Azkue I: 133. “Es el adjetivo *gaitz* ‘enorme’ que, unido generalmente a temas verbales, significa: a) difícil, punto menos que imposible; b) desprovisto”.

¹² Ibidem: 204. “Es el mismo sustantivo *ondo*, cabo, residuo. Se oye en *umekondo* (B) rapazuelo, *etxekondo* (B) casuca”.

Palatalizazio semikoa, irain-biraoaren adiera samurtzeko bideetako bat bada ere, askotan beste aldera ere erabiltzen da, hau da mesprezua areagotzeko. *Zepela*-ren indarra areagotzen ahal du *txepela*-k *zepel*-era ere ailegatzen ez dena adiera eduki dezakeelako. Hitzari edo esapideari ematen zaion donae-rak zerikusi zuzena du aukera horren eragingarritasunean.

Hauxe eta bera gertatzen da haur hizkerari dagozkion forma palatalizatuak mezu-hartzaile helduari igortzen zaizkionean. Oso erabiliak dira forma hauek irain-biraoen mesprezu zama handitzeko.

Bitarteko suprasegmentalek funtzio nabaria dute. Azentua daraman silabak ezohiko era trinkoan artikulatzen da eta, azentuaren indarra zinez hazten da.

ZÍzirikue

Esapide laburrak gorputz foniko bakarretako hartzen dira eta, hala ahoskatzen dira; azentu bakarrarekin eta goienez ere, bigarren mailako azentuaz lagundurik oinarrizkoa.

KÁkaluet < *kaka alu bat*

KÁkaostiàt < *kaka ostia bat*

SĒizak pÓrkuloartzea

II.II. Morfosintaktikoak

Erakusleak

Au, oi ‘hau’, ‘hori’

Lehen bi graduetakoak erabiltzen dira. Lehenbiziko gradukoa, *au*, hurbiltasunezkoa da eta hauxe bera erabiltzen da biraoa solaskideari zuzentzen zaionean ere:

Au kaka! Au ergela! Au alue! Au zepela! Au zozoa! Au astakirtena! Au kaskallue!

Au txatxue! Ze uste-k ik atzo yayoa(k) kala o!

‘Hau txatxua! Zer uste duk hik atzo jaiok garela edo!’

Bigarren mailakoak beste gainerako espazio guzia hartzen du.

Oi pitxitxi! Ez ai artaz fiato, ez keo!

‘Hori pitxitxi! Ez hadi hartaz fidatu, ez gero!’

Izena + izenondo izen multzoa

Izenondo hauek dira maizenik erabiltzen direnak: *aundi* ‘handi’, *zikin*, *zar* ‘tzar’, *polit* ‘polit’, *ear* ‘eder’ eta *galanta*:

Alu aundie, kabron galanta, zerri zikiñe, kaskallu politte, kabron earra, bandido zarra

Elkarketa kopulatiboak

Egokiera oparoa eskaintzen du. Ohikoenak bi izenondo osatuak izanagatik, nahi adinako izenondo errenkada para daiteke:

Zitalernegatue

‘Zital ernegatua’

Ankokerkebratue

‘Hankaoker kebratua’

Kaskartenkerma(d)arikatue

‘Kaskar tenker madarikatua’

Demonio/ demono izen errekkurrenteaz baliaturik

Edozein biraoren aurretik oso maiz erabiltzen da.

demonio/ demono + irain-biraoa

Mekaben, ure ekusi zuenen, tripek yan beaittula Joxerramonen orrek!! “Demonio enbusteroa, denak esan zezkiok!” (Migel Zabaleta Lizarragak esana. Perurena, P., 1996: 89).

Egarrie eukiko ik, egarrie “Erantzak demono tontoa!” esan tzion zakurreri (Juan Caballerok esana. Perurena, P., 1966: 278).

Interjeziotako erabiltzen diren izenondoak

Alakoa ‘halakoa’ eta *uxea*

Izenondoaren eskuinetan paratzen dira.

Alako-k ezbestea-ren zentzua hartzen du.

Ume mukizue alakoa!

‘Ume mukizua halakoa!’

Uxea-k arrunt haserre handia adierazten du.

Txoroa uxea!!

Irain-biraoaren adiera errepikatuz indartzen dute

Berrize ‘berriz ere’, *ezbeste* ‘ez beste’, *millaldiz* ‘mila aldiz’

Bi eratan azaltzen ohi dira: biraoaren eskuinetan, edo errepikatzen den biraoaren artean. Hona:

a) *Kakazue berrize!*

‘Kakazua berriz ere!’

Ollobustie ezbestea!

‘Oilobustia ezbestea!’

Putakumea millaldiz!

‘Putakumea mila aldiz!’

b) *Maarikatue berrize maarikatue!*

‘Madarikatua berriz ere madarikatua!’

Temosoa ezbeste temosoa!

‘Temosoa ez beste temosoa!’

Ustela millaldiz ustela!

‘Ustela mila aldiz ustela!’

Biraoa goieneko mailan paratzen dute

Esapide hauek ez dira bereziki biraoak indartzeko bakarra erabiltzen, baina, erabilera handikoak dira eginkizun horretan ere.

A ze + izenondo (irain-birao)

Bai + izenondo (irain-birao)

Zeñen + izenondo (irain-birao)

A ze alue!

‘A zer alua!’

A ze zerrie den oixe!

‘A zer zertia den horixe!’

Bai gizonan eroa!

‘Bai gizonaren eroa!’

Zeñen emakumen leorra den!

‘Zeinen emakumearen lehorra den!’

Gaur egungo gazteen mintzoan izenlagunaren orde, izena absolutibo mugagabe erabiltzeko joera ari da zabaltzen (*gizon*, *emakume*).

Zertarainoko, zenbateko + izenondo (irain-birao)

Elkarren kideko dira biak eta txandaka erabiltzen ohi dira bata bestearen tokian ingurune beretan.

Ue zertañoko eroa den eztao esateik

‘Hura zertarainoko eroa den ez dago esaterik’

I zenbateko zerrie aizen!

‘Hi zertarainoko eroa haizen!’

-tik sortu esapidea

Gehien batean maila gogorreko birao-esapideak sortzeko erabiltzen da, eta hartaraz geroz, maila gogorreko biraoak hartzen ditu oinarri.

Putakumetik sortue

‘Putakumetik sortua’

Zerriurdetik sortue

‘Zerriurdetik sortua’

Konparazioak

Ohikoa da beste irain-biraoekin edo ezaugarri bereko beste edozein elementurekin erkatzea, igorritako irainaren gogorra nabarmentzeko. Gisa honetako egituretan konparazioko elementuetako bat, konparazioaren hartzailearekin erkatzen dena hain zuzen, hizkuntza edo hizkera horretan adierazgarritasun handiko sinbolismoa duen elementua izaten da eta, guztiz estigmatizatutako izenondoen hartzailea:

Infernuko demonio guzik beño aluagoa

‘Infernuko demonio guziak baino aluagoa’

Ue kabrona ta ue beziñ kabrona au

‘Hura kabrona eta hura bezain kabrona hau’

Nek ezautu ten faltsoik aundina bayaiz i

‘Nik ezagutu dudan faltsoirik handiena bai haiz hi’

1. HARRIDURA ETA HASERREA ADIERAZTEN DUTEN HITZAK ETA ESAPIDEAK

1.1. Arraio

Oso arrunta eta hitzetik hortzera erabiltzen dena. Harridura eta haserrea adieraz ditzake. Esaldiaren hasieran kokatzen da bakarrik agertzen denean, bestelakoetan edozein izenordain galdetzaileraren ondotik joaten da interjekzio hau (*zer, nor, nori, non...*).

a) Harridura

Arraioa! Nonbatte dirue re bazeok!

‘Arraioa! Nonbait ere dirua ere bazagok!’

b) Haserrea

Ta neskaxkek berriz: yotzak Pastaiñ! Ta azkenen gurek: arraioa, anka goatuko zue ordea! (Sasiziztulari bat)

Edozein izenordain galdekariren ondotik joan daiteke (*zer, nor, non, nona, nondik...*)

Beño, ze arraio dok au? Ikearrie! Ze letra klase i! (Per.)

Izenondoa ere izan daiteke, izenari laguntzen diola, edota, izena elidituta:

Neska arraio onek ez paitit gauz onik itten!

‘Neska arraio honek ez baitit gauza onik egiten!’

Au arraioa!

‘Hau arraioa!’

Izenlaguna ere izaten da:

Arraioan umea, ez ete da sekulen ixilduko!

‘Arraioaren umea, ez ote da sekulan isilduko!’

Baditu berari atxikitako esapideak ere:

Iñ bearko ik arraio ez pada!

‘Egin beharko dik arraio ez bada!’

Arraio motillek! Au re badiu!

‘Arraio mutilak! Hau ere badiagu!’

1.1.1. Arraioena

Arraio-ren aldaera da hau. Beti bere gisa azaltzen da, beste laguntzailerik gabe.

Arruntean harridura hutsa azaltzen du.

Aita Santue bakar bakarrik gelditu emen tzen, bere batten: “Arraioena, etsaiek netien nek ok!” itten tzula (Migel Ramon Zabaletak esana. Perurena, P., 1996: 499).

Arraioena! Bai progre eta aurreratuak aizu! (Leitzar bat).

1.2. Erljioa eta izate sakratua erreferentziatako dutenak, sail oparoa osatzen dute

1.2.1. Alajainko, alajainkesa, alajañena

Euskal Herri guzian arruntean erabiltzen dira harridura adierazteko. Hala ere zenbaitetan haserre kutsua ere badute. Esaldiaren hasieran edo bukaerara joan daitezke:

Ederra da gero! Markakoa, alajainkoa! Hipokresiari stop!! (Leitzar bat).

Zillarrezkoak galdu nittun eta urrezkoak azaldu zen alajañe! (Astaitz, 1987).

An zegoala, gobernutarrak alajaiña! (Orixe, 1989: 31).

Alajainkesa-k genero markatzen duen atzizki erromanikoa du¹³. Goikoen testuinguru eta era berean erabiltzen da.

1.2.2. Dios, dedios, dedio, dedion, (er)redio, (er) redios

Dios ez besteak *redios*-en aldaerak dira. Eskuarki esaldiaren hasieran joaten dira.

Dios au egueldie!

‘Dios hau eguraldia!’

Redios artuko zetik lan earrak berak e!! (Migel Barriolak esana. Perurena, P., 1996: 383).

Dedios onaeño etorritte, ooiñ au! (Patxi Barriolak esana. Perurena, P., 1996: 378).

Gaztelaniako artikulua buruhauste handiak sortzen ditu euskaldun askoren.

¹³ *-issa* (grec.-lat.) > *-sa/-esa* (Segura, S. & Etxabarria, J.: 95).

Oso nabaria izaten da maileguetan. Horrela bada jendea *dios*-i artikulua femeninoa paratzen diona:

La dios ue motille!

‘La dios hura mutila!’

1.2.3. *Kristo*

Esaldiaren hasieran, bukaeran eta edozein izenordain galdetzailereren ondotik joaten da. Harridura adierazten du. *Arraio* eta tankerakoen zentzua izaten du:

Kristo non sartu aiz!

‘Kristo non sartu haiz!’

Noa kristo oa motel!

‘Nora kristo hoa motel!’

Ta Batan Iturri ori, zeñ kristo ote zen? (Per.).

1.2.4. *Laostia, ostia, ostias*

Harridura adierazteko erabiltzen da esaldiaren hasieran.

Laostia oi arri puske!

‘Laostia hori harri puska!’

Ostia(s) oi zanpatekoa!

‘Ostia(s) hori zanpatekoa!’

Ostias askotan bai *zera*-en ordezeko ere izaten da:

Bai ostias iñen diñet nik ori!

‘Bai ostias eginen dinat nik ori!’

Beste batzuetan *arraio*, *kristo* edo tankerakoen sinonimoa izaten da. Ingurune hauetan edozein izenordain galdetzailerekin azaltzen da, eta dagokion deklinabide kasua hartzen du:

Zein ostiana da ori!

‘Zein ostiarena da hori!’

Non ostiatik azaldu de ero au!

‘Non ostiatik azaldu da ero hau!’

Miel: bueno, ta ez ba’zo nai, ze ostia? (Leitzako Marmari)

Zenbaitetan *alu*, *zerri* edo gisakoen zentzua du:

Nagusi ostia onek lana besteik eztiu iñazten!

‘Nagusi ostia honek lana besterik ez digu eginarazten!’

1.2.5. *Laostiela, laostibiri, ostibiri*

Aurrekoaren aldaera arinagoak dira.

Ostiela i! Ekartzak beingoan!

‘Laostiela hi! Ekar ezak behingoan!’

Ostibiri au bada marka!

‘Ostibiri hau bada marka!’

Laostibiri oi tantoa!

‘Laostibiri hori tantoa!’

1.2. 6. Bada esapide multzo bat Santuak erreferentziatako duena

Gisa honetakoak zerbait ukatzeko erabiltzen dira:

San Jurjon/ San Pedron abarkak!

‘San Jurjoren/ San Pedroren abarkak!’

San Pedron barrabilek!

‘San Pedoren barrabilak!’

“–Aiii! *San Pedron abarkak!*” *Hori esatea gustatzen zetzion beti. Ta nik esaten nion:*

“–Attuna, *San Pedrok ba al tzittun ba abarkak?*

–*Bai, nik baño obek gañea*” *esaten tzien berak* (Itziar Sagastibeltzak esana. Perurena, P., 1996: 347).

Dena dela, abarkak hitzarekin edozein pertsonaia famatua ere lotzen ahal da. Horrela, *Frankon abarkak* ‘Frankoren abarkak’, *erregen abarkak* ‘erregen abarkak’ eta abar ere esaten da.

1.2.7. *Beste batzuek, berriz, Jainkoa, edo harekin lokura zuzena duena aipatzen dute*

Hauek arinagoak izaten dira. Esaldiaren hasieran edo bukaeran joaten dira. Harridura eta haserrea adierazten dute. Arruntean, beste biraoak itsusi eritza, arinagoko hauek erabiltzen dira.

Jainkoan izenen!

‘Jainkoaren izenean!’

Jainkoaren izenean! Pasatzen ari haiz, Fraxke (Fraxke).

Zaude ixilik Jaungoikoaren izenean! Zertara joan behar du 14 urte beste-rik ez dituen zu bezalako ume gorri batek? (Tittu: 31).

Gure jainkoa!

Ok aikerik gure jainkoa!

‘Hauek adikeriak, gure jainkoa!’

Jainkoak guarda!

Eskerrik asko ekusi ez du:n! Jainkoak guarda!

‘Eskerrik asko ikusi ez dugun! Jainkoak guarda!’

Gure(g)atik odola ixuri zula!

‘guregatik odola isuri zuela!’

Ezbehar handi samarretan esaten da; ezintasuna eta etsipena azaltzen du.

Orain dela urte franko, gure auzoko baserritar batek, familia handia zue-
na, ardia etxe ondoko larrean hila aurkituta, bizkarrean zeramala, horrela esan omen zion gure osabari:

Ta geo gureatik odola ixuri zula! Ezto itxure aundiik!

‘Eta gero guregatik odola isuri zuela! Ez du itxura handirik!’

Gaur egun hedapen handikoa ez bada ere, garai batean bai, nonbait.

1.3. *Izorrai* ‘Izorra hadi’

Bigarren pertsona ez neutroari erreferentzia egiten badio ere, ez zaio hari zuzentzen ezinbestean. Esapide hutsa da edozein pertsonari zuzentzen zaiona, edota inori ez zehazki. Maiz, gainera, nork bere buruari esaten dio egoe-
ra bihurri antzean aurkitzen denean.

Oañ lenaz gañea neonek patu bear emen dot falta dena, izorrai!

‘Orain lehenaz gainera, neronek pagatu behar omen dut falta dena, izorra hadi!’

Esan nienen, baa, txorakerie zela ta oañ berriz nattenayezkoa, izorrai i! Intzak!

‘Esan nianean, baa, txorakeria zela, eta orain, berriz, naita nahiezkoa, izorra hadi! Egin ezak!’

Jodiai ‘jodi hadi’ dugu erderatiko ordain zuzena. Erabilera bertua du, ia desberdintasunik gabe.

Eurie bear emen giñien, to! Jodiai oañ! Baztar guzik eaman bearren!

‘Euria behar omen genian, to! Jodi hadi orain! Bater guztiak eraman beharrean!’

Dena dela, aditz laguntzailea aldatuta, pertsona jakin eta zehatzei zuzentzeko ere maiz erabiltzen da:

Sosi(k) kabe geldittu diela! Izorra daitzela i! Gutxio gastatzea dikea!

‘Sosik gabe gelditu direla! Izorra daitezela hi! Gutxiago gastatzea diate!’

1.4. Bada esapide sailtxo bat animalien gainean erreferentzia egiten duena.

Baita zera ere!, kakazarra eta gisakoen funtzioa egiten dute eskuarki

Asotoan bioliñe

‘astoaren biolina’

Astoan barrabillek

‘astoaren barrabilak’

Astoan buztana

‘astoaren buztana’

Zakurren bioliñe

‘zakurraren biolina’

Zakurren barrabillek

‘zakurraren barrabilak’

Zakurren buztana

‘zakurraren buztana’

Zakurren kaskabillek

‘zakurraren kaskabilak’¹⁴

Zakurren putze

‘zakurraren putza’

Zakurren ipurtzuloa

‘zakurraren ipurtzuloa’

Eta gero zakurren ipurtzulotik ekarriko ditugu musikeroak festetarako (Bixente).

1.5. *Jode(r), jobar, jope, jolines, jolin*

Erabilera handikoak dira, baina, askoz ere ahulagoak azkeneko hirurak aurrenekoa baino. Hiru hauek ontzat hartuak daude hurrekin solasean eta baita haien arteko hizketan ere.

Jode! Zenbat buelta iñ bea tto(t)pa!

‘Jode! Zenbat buelta egin behar ditut bada!’

Jope! Oañ e nei tokatzen al tzat betetzea!

‘Jope! Orain ere niri tokatzen al zait betetzea!’

¹⁴ *Kaskabilak = barrabilak.*

Jolines! Oixe dibujo politte in dozo aitz!
 ‘Jolines! Horixe marrazki polita egin duzu hagitz!’
 Ezagutu izan dugu *Jolin* izengoitiko gizasemerik ere, hitzetik hortzera hitz hau errepikatzen zuelakoz.

1.6. *Kauen/ kaben* ‘kagoen’

Hitz birao honen bitartez sortzen den esapide multzoa, gaztelaniatik hartu bezalaxe, edo beti ere, aldaketa handirik gabe esaten da (*kaben dion, kauen dios, kauen sandios, kaben laostia, kaben laputa*Ö).

Mekaben oaingoan kendu bear zazkioat orrantik zorrik eta mandeulik erki!! (Patxi Barriolak esana. Perurena, P., 1996: 379).

Mekaben la puñeta! Erra sartu zeien!” esaten tzun gero Pastaingo attunak (Migel Barriolak esana. Perurena, P., 1996: 285).

Bitxi samarra da honako hau ere:

Urbitan neskame zegoala beteta utzi tte, gero ezkontzeko yoan emen tzien da “Mekaben tesoro!” Nausik aurren artute bialdu (Fraxku Sagastibeltzak esana. Perurena, P., 1996: 433).

Azpimarratuko dugu arruntean artikuludun direnak, artikulurik gabe ere erabiltzen direla.

Kauen la puta eta *kaben puta* ditugu tankera horretakoak:

Kaben la puta! Sorrak al tzautea o, ez al duzue esanik aitzen!

‘Kaguen la puta! Gorra al zaudete edo, ez al duzue esanik aditzen!’

Mekaben puta akatuko bañiñue sikira, ola bueltaka erabilli gabe! (Maria Jesus Sagastibeltzak esana. Perurena, P., 1996: 178).

1.7. *Kaka, kakazarra, kaka arraioa, kaka alu et* ‘kaka alu bat’, *kaka ostia-t* ‘kaka ostia bat’

Hauek denak ere, gisa berean erabiltzen dira. Behar bada gogortasunean dute alde pixkaren bat, *kaka* hutsa arinagoa baita besteak baino.

Kaka! Ez emen dik gaurko bukatuko

‘kaka! Ez omen dik gaurko bukatuko’

Kaka arraioa! Eon ai ixilik!

‘kaka arraioa! Egon hadi isilik!’

Ez don in bear, ba kaka alu et, i!

‘Ez dun egin behar, bada, kaka alu bat, hi!’

Kaka ostia-t iñen dik orrek!

‘Kaka ostia bat eginen dik horrek!’

Kakazarra beño okeraoa dok!

‘kaka zaharra baino okerragoa duk!’

1.7.1. *Kakitzat* ‘kaka hiretzat’

Honek gaztelaniako *vete a la mierda, mierda pa ti* eta tankeratsukoen zentzua du. Oso erabilera handikoa da. Erabiliena bigarren pertsonarekin bada ere, beste gainerakoekin ere erabiltzen da. Batez ere, solas zuzenean solaskideari esaten zaio. Beraz, bigarren pertsonekin lotuta agertzen da maizenik (*kaka zuntzat* ‘kaka zuretzat’):

Aittu nai al dok i! A, ez, ba, kakitzat!

‘Aditu nahi al duk hi! A, ez, bada, kaka hiretzat!’

Goragoan *kaka*-rekin esapide osatu duten aldaera guziak hartzen ditu: *kakazarra itzat, kaka alu et itzat, kaka ostia-t itzat*.

1.8. *Koño, koñe, (e)rrekoñe*

Haserrea eta harridura adierazten dute.

Ta gure attune atarin eserite eotten tzen geienen, ta etorri omen zetzion Almagro ori, ta, "Koño!" esateko ottera izuarrie zun ba gure attunak (Itziar Sagastibeltzak esana. Perurena, P., 1996: 345).

Rekoñe, gizentzeko gerore denboa zeok, ezkondu gattetzen miñipin lendabizi! (Miguel Barriolak esana. Perurena, P., 1996: 285).

Honako hau ere jaso dugu:

"Attuna! Barkazio eskatzera eldu naiz" eta besteak: "Peko koñe! Seitzan ortik obera!". Aren maldizio guzie orixe izaten tzen "Peko koñe!" da gero "Arraio paltsoa", oixek izaten tzittun bere maldizio guzik (Teresa Sukuntzak esana. Pätziku, P., 1993: 20).

Azkue, 1969 I: 17

Peko, que cual sufijo figura en vocablos como *eskupeko* 'propina', liter. lo de bajo la namo, *minpeko* 'frenillo' de la lengua, *orripeko* 'fandango', liter. lo de bajo las hojas, ha evolucionado en varos dialectos hasta adquirir categoría de sustantivo. *Peko* se usa en ellos como súbdito y aun significando esclavo.

Batzuetan *bai zera*-ren zentzu berekoak dira; beste batzuetan, berriz, *bai, bai, baita, baita, beida, beida* (begira, begira) eta gisakoen antzerako betelan hutsa egiten dute.

Koño! I! Bai zea! Etzeok gauz onik!

'Koño! Hi! Bai zera! Ez zagok gauza onik!'

Koñe, koñe, koñe, aixe irraazi zeyok ordun

'Koño, koño, koño aisa irabazi zioz orduan'

1.9. *Lak(r)ispula, laoskurida, laostra, ostra(s), laospa, ospa(s), lapuñeta, puñeta(s)*

Tankera bertsukoak dira hauek. Arinak, gizarteko talde eta pentsakera guztiek ontzat hartutakoak. Gaztelaniatik hartutako birao samur antza hauek, singularrean edo pluralean agertzen dira artikulurik gabe doazenean. Lehendabizikoa da beti artikularekin agertzen dena.

Laostra! Dirue gastatzeko billurrik ez o!

'La ostra! Dirua gastatzeko beldurrik ez edo!'

Laospa! Bukatu beayiu lenbailen gosaltzea yoateko!

'La ospa! Bukatu behar diagu lehen bait lehen gosaltzera joateko!'

Baño gure attuna asarre: "Puñetas, nik aarik zuri saldute nola yoan beat oaiñ Lekunberrire!" (Joxemiel Arregik esana. Perurena, P., 1996: 264).

Puñetero/ puñetera izenondoak ere erabiltzen dira gaztelaniaz bezalaxe:

Puñetera, ze uste zun orrek, utzi iñ bear niola eo!

'Puñetera, zer uste zuen horrek, utzi egin behar niola edo!'

1.10. *La puta, puta*

Hamaika esapidetan erabiltzen den hitz biraoa.

Laputa artikuludunak gehienetan harridura hutsa eta ez haserrea adierazten du:

La puta! Ez duk oixe bela bukatzekoa!

‘La puta! Ez duk horixe berehala bukatzekoa!’

La puta i! oik lanak in dittuzue!

‘La puta hi! Horiek lanak egin dituzue!’

Artikurik gabe ageri denean, arruntean, beste hitzen batez edo batzuek osatutako esapideetan izaten da:

Puta dios! Hau komedie! ta deuse ezin in!

‘Puta dios! Hau komedia! Eta deus ere ezin egin!’

Puta hitzaren inguruan esapide asko mailegatu da oso osorik: *de puta madre, la puta madre, la puta madre ke le pario, puta madre ke le pario, puta madre ke pario* Ö Ikusten denez, artikulua erabilera gora-behera handikoa da, eta hiztunetik hiztunera aldatzen dena.

Beste batzuetan euskal flexioko kasua txertatzen da esapidean. Honelakoetan, esapide itsusitako joagatik, egoera baten aurreko poza edo gainezka oniritzia adierazten du. Orain urte batzuek indar handia zuten gisa honetakoek; egun, ordea, gutxiago entzuten dira:

Puta madreko afarie in giñien!

‘Puta madreko afaria egin genian!’

Ño! Puta madrekoa zeok txuleta!

‘Puta madrekoa zagok txuleta!’

Hitz hau bera, izenondotako ere erabiltzen da. Tankera honetakoetan, zerbaiten aurreko gaitzespen gogorra adierazi nahi izaten da, eta arruntean *alua*-ren zentzua hartzen du:

Etxe puta onta etorri giñuzen ba!

‘Etxe puta honetara etorri gintuan bada!’

Naigo nitek erri puta au beñe ekusi ez bano!

‘Nahiago niake herri puta hau behin ere ikusi ez banu!’

Alu-ren zentzua ere hartzen du norbait era horretan kalifikatu nahi denean:

Ume putori!

‘Ume puta hori!’

Atso putonek, eztiu gauz onik in bear!

‘Atso puta honek ez digu gauza onik egin behar!’

Ez du sexurik bereizten eta berdin erabiltzen ohi da gizonezko edo emakumezkoentzat. Leitzan gizaseme batek besteari burla egin eta honela esan omen zion burlatutakoak besteari:

I aiz puta ta gañea madrikona!

‘Hi haiz puta eta gainera marikona!’

2. BIRAO JURAMENTUEN SAILEKOAK

Emendik eta Jainkoan aurreako ‘Hemendik eta Jainkoaren aurrerako’

Desafio kutsukoa da; zerbait frogatu nahi denean erabiltzen da:

Emendik eta jainkoan aurreako ori alaxe dela!

‘Hemendik eta jainkoaren aurrerako hori halaxe dela!’

Komo ai dios!

Gaztelaniatik hartutako esapide hau oso hedatua eta errotua dago euskaldunen artean. Goikoaren zentzu bera du.

Ez, kopon, gustatu zetziek, komoaidios baietz (EL, LA, LO EXMO...)

Leitzako gizaseme batek horrela uztartu zituen ikusi berri ditugun bi esapideak:

Ara! Emendik eta jainkoan aurreako, komo ai dios jainkoik ez dela!

‘Hara! Hemendik eta jainkoaren aurrerako, komo ai dios jainkorik ez dela!’

Ageri denez, esanahiari lotuz geroz, kontraesan handia dago esaldi horretan. Horrexek hain zuzen ere, egin du gogoangarri esaldi hori.

Egie ta fedea!

‘Egia eta fedea!’

Azpirotz, 1967: 322

Especie de juramento empleado por los niños para afirmar o prometer algo.

Guk, behinik behin, ez dugu haurren solasean halakorik ezagutu, bai ordea, jende larriarenean.

Oain gain-gañen aize errota bat patu emen dioa. Egi eta fedea, Ezkurreko legea (Sasilarrosa).

3. NORBAIT MODU TXARREAN BIDALTZEKOAK

Ospa, anka ‘hanka’, *uxe* ‘uxa’ *segi, alde*

Ospa, anka eta *uxe* tankera bertsuan erabiltzen dira norbait era txarrean bidali nahi denean ondotik.

Ospa emendik!

‘Ospa hemendik’

Anka emendik atzea beidetu gabe!

‘Hanka hemendik atzera begiratu gabe!’

Uxe, hitzaren jatorriak adierazten duenez, norbait *uxatu* nahi denean.

Uxe ortik zoldazu zikiñe!

‘Uxa hortik zoldazu zikina!’

Segi eta *alde* aurrekoen tankerako esapideak sortzeko ezeze, birao esapide gogorrakoak egiteko ere baliatzen dira.

Alde intzo ostiaten!

‘alde egin ezazu ostia batean!’

Hurrengoak gaztelaniatik ekarritako kalkoak dira:

Seitzak porkulo artzea

‘Segi ezak por kulo hartzera’

Segitzan aize artzea

‘Segi ezan haize hartzera’

Alde intzak porkulo artzea

‘Alde egin ezak por kulo hartzera’

Alde intzak haize artzea

‘Alde egin ezan haize hartzera’

Porkulo artzak ‘por kulo har ezak’ aldaera ere bada.

Esapide hauek gaztelaniako testuinguru berean erabiltzen dira.

Eskuarki solas zuzenean erabiltzen dira (*alde intzak/ n* ‘alde egin ezak/ n’, *alde in tzo* ‘alde egin ezazu’, *alde intzazue* ‘alde egin ezazue’; *seitzak/ n* ‘segi ezak/ n’, *seizazo* ‘segi ezazu’, *sei zazue* ‘segi ezazue’). Baina, bestela ere erabiltzen da, *alde in tzala* ‘alde egin dezala’, *alde in tzela* ‘alde egin dezatela’; *sei zala* ‘segi dezala’, *sei tzela* ‘segi dezatela’.

4. BESTEREN IZAERA TXARRESTEKO HITZAK ETA ESAPIDEAK

Haserrearen eta txarrespen motaren arabera, esanahi desberdineko biraoak erabiltzen dira. Izaeraren gaineko deskribapen txarra egiten da batzuetan; mesprezua adierazten da beste batzuetan; gutxiespena edo errukia zenbaitetan; gorrotoa eta amorrazioa beste zenbaitetan...

4.1. Izaeraren alderdi txarrak nabarmentzen dituzte

4.1.1. Harrokeria

Euskaraz harrotzea haztea, puztea, handitzea eta haizatzea da. Hori dela eta, hitz hauek estu lotuak agertzen dira arruntean. Pertsonari zuzentzen zaizkionean zentzu txarrean izaten da beti. Haur bat harrotzen denean, dena neurritz gain egiten hasten da.

Aize ‘haize’, *aizetsul/ aizezu* ‘haizetsu’

Haizeak harroaren irudia hartzen du, irudi ezeze eragile ere badelako, *aizeak baztarrak arrotze itto* ‘haizeak bazterrak arrotzen ditu’. Gurean txapelaren¹⁵ lekua ere hartzen du pertsona harroaren ibilera adierazi nahi denean, *aizea burun da ibilli mundun* ‘haizea buruan eta ibili munduan’.

Are nabarmenago izaten da hegohaizea baldin bada dabilena. Norbait harro antzean eta bere onetatik aterata dabilenean, hegohaizeari egotzen zaio okerraren errua, *egoa baitabil*, eta tankerakoak ohiko esaerak izaten dira.

Haizea izenetako, atributotako edo izenondotako erabiltzen da:

Aizea miñipin, badauke burun

Haizea, behinik behi, badauka buruan’

Au aizea!

‘Hau haizea!’

Aize samarra baita

‘Haize samarra baita’

Aizetsu aizearen paretsuan, maila arinekoak da.

Aizekeri zala-ta damutu, liztez lotu zetunan zangoak estu estu (Orixe, 1987: 193)

Arro ‘harro’, *arroska* ‘harroska’

Hauetan arinena *arroska* da. Horixe eta bera erakusten digu *-ska* atzizki ttikigarriak.

Ai! Arroxa, arroska!

‘Ai! Harroxka, harroxka!’ Maiz esaten zaie haurrei.

Andinai ‘handinahi’, *aundiuste*

Azkue

Andinai: ambicioso

¹⁵ “Txapela buruan eta ibili munduan”.

Hauek esateko garaian, *au* diptongoarena ahoskera hanpatu egiten da. *Oparrungo attuna mei meia emen tzen, ta aundiuste puxke zun oitakoa* (Itziar Sagastibeltzak esana. Perurena, P.,1996: 176).

Aizeputz ‘haizeputz’, *arroputz* ‘harroputz’, *aundiputz* ‘handiputz’
Konposizioaren bigarren elementutako *-putz* hartzen duten hauek dira hauetan gogorrenak.

Azkuek *andiputz*-ez ematen digun definizioak, ongi balio du saileko beste bientzat ere.

Azkue
Andiputz: Vano, orgulloso

Isilka saia dute mendi-zelaietan “Makil” aize-putz ori goitu bearrean (Orixe, 1972: 32).

Arraundioso

OEH
Arranditsu. Arrogante, presuntuoso, ostentoso

Iparraldetik dator leitzar arranditsu (Orixe, 1972: 15).

Leitzarron izengoitia da. Orixek *-tsu* atzizkia badarabil ere, Leitzan *-oso* atzizkia erabiltzen da eskuarki. OEH-n ere *-tsu* atzizkiduna besterik ez da ageri.

Fanfarron-aren sinonimo zehatza ez izanagatik ere, gaur egun maizago erabiltzen da *fanfarrona* leitzarren izengoititako, batez ere, auzo herrietakoen mintzoan.

*Burloso*¹⁶

Izenondo hau hartzen duen pertsona harroa da, besteen gainerik dagoen ustea duena, mespreziatu egiten ditu besteak.

Bu! Burloso amorratue da, beti par in bear besteri

‘Bu! Burloso amorratua da, beti barre egin behar besteei’

Fanfarron

Arraundioso-ren tokian leitzarren izengoititako erabiltzen dela esan dugu, hala ere, konnotazio txarragoak ditu *arraundioso*-k baino, Leitzan behinik behin. Horregatik, behar bada, *fanfarron* nahiago izatea auzo herritakoek leitzarroi esateko.

Ze esaan tzien fanfarron tzerri orrek!

‘Zer esanen zian fanfarroi zeri horrek!’

Pantasioa/ a

Pantasiak, uste izate arina eta gaiztakeriarik gabekoarekin du zerikusia izenondo honetan.

Oixe pantasioa da! Traje txar ue yantzitte, uste politte!

‘Horixe fantasioa da! Traje txar hura jantzita, uste polita!’

Leitzarra kasik Goizutako erriraño sartu emen tzen. Goizutarra, pantasioa samarra izakio, ta orrazatzen denbora asko pasatu (Benito Erasok esana. Perurena, P., 1996: 541).

¹⁶ Hitz honetan ez du generoa hartzen hitzun guzien mintzoan: *Neska burlosoa da*, baina, bai eta ere *neska burlosoa da*.

Pinpirin

Goikoaren antza du. Itxurazko azaldu nahi handinaikeriarik gabea adierazten du. Arropetan, janzkeran, orrazkera, bere buruaren apainduran... nabarmen gelditu nahi duenari esaten zaio. Emakumeentzat erabiltzen da.

Ara Txetareneko andere pinpirin (Orixe, 1972: 19).

Poteoso eta *potes*

Harrokeria eta gezurrarekin du lotura. Gezur harroak esaten dituen; bere burua nabarmentzeko handinahikeriak esaten dituen. Gezur hauei *pote* esaten zaie.

Bai poteosoa! Atetik kanpoa nola dizen ikusteko moduko potek botatze tto

‘Bai poteosoa! Atetik kanpora nola doazen ikusteko moduko poteak botatzen ditu’

Irain tankerako hauek maiz hartzen dute gaztelaniazko *-s* pluralgilea. Morfema hau hitz adierazgarri ugari sortzeko erabiltzen da, batez ere, irainak eta izengoitiak. Askotan, honakoan bezala, *-oso* atzizkiarekin txandaka ageri da; gehienetan, ordea, aldaera adieragarririk ez duten hitzetan. Oso emankorra da.

Txulo

Gaztelaniazko zentzu berean erabiltzen da. Generoa ere hartzen du.

Motil txulo oi

Mutil txulo hori’

Neska txula au

Neska txula hau’

Usteoso

Uste izate handiko pertsona; besteak baino gehiago delakoan dagoena. *Bai uste ta ez izan*, esaerari ongi lotzen zaiona.

Azpirotzek (1963: 335) *usteoso* eta *ustetsu* dakartza, ‘Creidillo. Sobervio’ adieretan. Egun, behinik behin, *usteoso* baizik ez dugu aurkitu.

Usteosoa da orreatik! Oi ministroa balitz, non kabittu!

‘Usteosoa da horregatik! Hori ministroa balitz, non kabitu!’

4.1.2. *Izaera arina adierazten dute**Arin, kaskarin/ buruarin, txoriburu*

Ori itteko re gizonak bear do ba!... Nek eztakitt, buruariñ samarra zela re esaten tzuen da... (Joxemiel Arregik esana. Perurena, P., 1996: 417).

Ganora edo fundamentu handirik gabekoei esaten zaie. Maila arinekoak dira.

Zeñen ariñe den! Beti mottiko izanen da oi!

‘Zeinen arina den! Beti mutiko izanen da hori!’

Axolkabe ‘axolagabea’

Bat ere axolarik ez diona deusek ere. Hau goikoak baino gogorragoa da.

Axolkabea aiz orreatik e! Sekulen ez aiz fundamentun sartuko!

‘Axolagabea haiz horregatik e! Sekula ez haiz fundamentuan sartuko!’

Tabernako atean karretila utzi eta barrenera sartu zen. Usuala edan eta tabernariari galdetu zion:

–*Miel Joakinek zertara bidali nauen bai al dakizu?*

Holaxeko axolkabea zen (Astaitz, 1987).

Ergel

Ziur aski ere, tankera honetako hitz-biraorik erabiliena izanen da. Oso osoa ez den pertsona adierazten du. Arin samarra da, nahiz eta birao arin

gehienak bezala, donaeraren eta testuinguruaren arabera, gogorra ere izan daitekeen.

Ergelak ez baitu gauz onik

‘Ergelak ez baitu gauza onik’

Maiz esaten den esaera da, ezegitekoren bat egin duenaren gaineko hase-
rea adierazteko.

*Txantxari*¹⁷

Gaztelera ‘peonza’ esaten dena. *Txantxaria* bezala beti bueltaka, oso al-
dakorra denari esateko erabiltzen da.

Oi txantxarie, iri oi esan da, nei berriz bestaldera

‘Hori txantxaria, hiri hori esan eta, niri berriz beste aldera’

Txanbelain

Adineko jendeak erabiltzen du.

Azkuek *txanbelin* dakar *lindo, airoso* adierarekin.

Bestalde, *chambelán* hitza ere bada gaztelaniaz. Hona zer esaten digun Es-
pañiako akademiko hiztegiak:

Chambelán. (Del germ. Kamerlinc, camarero, a través del fr. Cambe-
llan.) m. Camarlengo, gentilhomme de cámara.

Gogora ere ekartzen du errepublika garaian Erresuma Batuko lehen mi-
nistro izandakoa, alegia, *Chanberlain*. Garai hartako errepublikarren artean
izan zuen ospe txarra ere izan daiteke erabilera honen arrazoia.

Beti ere, kaskarina eta axolagabe samarra adierazten du.

Au txanbelain!

4.1.3. Egonarririk ez duena

Epurdantzari ‘ipurdantzari’, *epurtarin* ‘ipurtarin’

Geldirik egoten ez dakiena.

Ya ba, geldik eon beazo! Epurdantzarie alakoa!

‘Ea bada, geldirik egon behar duzu! Ipurdantzaria halakoa!’

Neska epurtarin oi inon gelditzen ezpada, erotuko zat geo!

‘Neska ipurtarin hori inon gelditzen ez bada, erotuko zait gero!’

Ziziliku/ ziziriku

Suziria bezala mugitzen dena.

Zaude ixilik! Ue motela! Ziziriku politte bai! Ezta inone eotten da

‘Zaude isilik! Hura motela! Ziziriku polita bai! Ez da inon egoten eta’

Hala ere, Azpirotzek (1967: 24) “Persona de temperamento quisquilloso”
dakar. Gaur egun ere bi adierei eusten die.

Ziraun ‘ziraun’

Azpirotz, Ibidem

Persona escurridiza (temperamento).

Topo inda re etzak geldituko ez! Oi ziraune!

‘Topo eginda ere ez zaik geldituko ez! Hori zirauna!’

Gaur egun, biguintasun eta zaulitasun handiz mugitzen den pertsonari
ere esaten zaio.

¹⁷ ‘Dantzari’-ren forma adierazgarria da hau. Informazio hau Patxi Salaberri zor diot.

4.1.4. *Izaera ero antza adierazten dute**Ero*

Hitz honek burua galtzen duenak eragiten dituen irudipen ugarietatik hartzen du irainetako erabiltzen denean: errukia, amorrazioa eta baita xalotasun pittin bat ere.

Ero gizaxoa! Obenen e, ze in bear tzien orrek

‘Ero gizagaixoa! Hoberenean ere, zer egin behar zian horrek’

Ero zerrie! ez al dok ekusten motorra ondatzen ai yaizela!

‘Ero zerria! Ez al duk ikusten motorra hondatzen ari haizela!’

Bu! Langille amorratue dok, oaiñ, oi bai, dena eroa, eztok deusengatik ikatzen, trebea

‘Bu! Langile amorratua duk; orain, hori bai, dena eroa, ez duk deusengatik ikaratzen, trebea’

Leitzako bi bordari, igandetako erronda egindakoan, etxera bidean jarrri omen ziren. Batak besteari eroa esan omen zion, baina, asmo txarrik gabe.

Ez keo neri eroa esan e! Ni enak eroa! - Erantzun omen zion besteak.

Beño demono eroa, zeñek esan dik iri eroa- Berriz ere lehendabizikoak.

Horrela segitu omen zuten banatu ziren artean; batak oharkabean eroa esanez, eta bestea, berriz, eroa esaten ziolako sutua.

Txoro, txoroaize, txoralda, txoropito, astapito

Azpirotzek *zoroaize* dakar. Egun ez da horrenik erabiltzen, bai, ordea, *txoroaize*.

Azpirotz, 1967: 24

Zorozize: Bobo, imbécil

Astapito: Imbécil

OEH

Pito hartzen duten guzien gisa, badute hauek ere *ergel*, *axolagabe* ... eta tankerakoen kutsua.

Txoralda

Azpirotz, 1967: 22

Txoralda: Loquillo (de temperamento un tanto alocado).

Arinak dira denak, nahiz eta *txoroa* gogorra ere izan daitekeen.

Hitz hau Azpirotzek *Zentzuzko*-ren antonimotako jotzen duela esan genezake *Zentzutu* hitzari egiten dion definizioan. Hona (1967: 23):

Zentzutu: Llegar a tener juicio. Txoro ori, ezta sekulen zentzutuko

Orain ere lanak ziran lengo alderantziz: alaba, txoro-txoro parra ezin geldiz (Orixe, 1972: 53).

Ziribuztan

Azpirotz, 1963: 332

Ligero de carácter. Gizon ziribuztana ‘hombre ligero’

Buztan hitzak tankera honetako hitz-elkarketa ugari osatzen du: *mirubuztan*, *ollobuztan*...

Arina da. Aurrez aurre ere esaten da.

4.1.5. *Bihurria****Aluita***

Alu-tik heldu dena, baina, hura baino askoz ere arinagoa. Gaiztakeria arinak, ia bihurrikeriak egiten dituenari esaten zaio.

Aluita! Ze uste uen e nitzela oartuko? E nak ni gaur goizen yayo a e!

‘Aluita! Zer uste huen ez nintzela ohartuko? Ez nauk ni gaur goizean jaioa e!’

Eroska

Arau formaletara lotu gabe, bere airera ibiltzen denari esaten zaio.

Ero + *ska* atzizki ttikigarria.

Ez gaixtoa ezta, eroska samarra...

‘Ez gaiztoa ez da, eroska samarra...’

Kitolis, erokitolis, errekitolis

Esanahi bertsua dute. Ateraldi zebreak dituen, asko pentsatu gabe jotzen duena... Hala ere, inozotasuna areago azpimarratzen da *kitolis* hutsa edo *errekitolis* ere esaterakoan; zebreakeria eta axolgabekeria gehiago erakusten ditu *erokitolis*-ek.

Erre aurrizkia + *kitolis*, *ero* + *kitolis*

Kitolis izenak badu tradizio literarioa: Txomin Agirrerren Kresalako arrantzale zaharra, *Kitolis* izeneko; Espainiako literaturan ere, Joaquin Adán Berned-en *Mosen Quitolis* (1893) eta Jose Jesús Garciaren *Quitolis* (1900) nobelak aurkitzen dira. Guzietan ere, pertsonaia onbera gaiztakeriarik gabea eta zebre samarra da.

Au kitolis!; *demono erokitolis!*; *errekitolis berriz e !*

Traste

Joanito “*Ojalateroana*”, *Bittorio ta orin anaie, traste ikeragarrie uen* (Patxi Barriolak esana. Perurena, P., 1996: 379).

Maila arinekoak dira, eta badute xalotasun kutsu doi bate re.

Marisorgin, marisastraka, sastraka, sorgintxulo

Arruntean emakumezkoei eta, bereziki, hurrei esateko erabiltzen dira. Huek ez dute zentzu txarrik, xalo antza baizik. Haur bizia eta argiaren ispilu izan nahi lukete.

Au marisorgin, zok ba baitakizo abokatuk añe!

‘Hau marisorgin, zuk bai baitakizu abokatuek adina!’

Hala ere, *Mari*- osagaia emakumezkoei zuzendutako (neskei) beste edozein irain samurtzeko erabiltzen da:

Maripetral, marizittal, marikaskar, marizipotz

4.1.6. *Patxada handiegikoa, kezka gutxiegiako pertsona****Barrabilaundi, potroaundi, potrolloaundi, izipuaundi, gibelaundi***

‘Barrabilandi’, ‘potrohandi’, ‘potroiloandi’ ‘izipuhandi’, ‘gibelandi’

Azaltzen duen lasaitasun handiegia ez du onik egiten, mina eragiten du. Halakoari esateko erabiltzen dira. Agerian denez, *gibelaundi*-k ez besteek gizonetakoaren sexu organoen aipamena egiten dute. *Barrabil* eta *potro* sinonimoak dira; *potrollo potro*-ren aldaera ttikigarria da; *izipu* = *zakila*.

Demonio potroaundie! Ez al dok etxen lanik?

‘Demonio potro handia! Ez al duk etxean lanik?’

Gibelaundi zerrie! Andrea lanen da i taberna zulotik atea gabe!

‘Gibel handi zerria! Andrea lanean eta hi taberna zulotik atera gabe!’

Potroso

Honek lasaitasuna handiegiaz gainera, zabarkeria ere adierazten du. Lanak eta gainerakoak nolahi egin eta bat ere axolarik ez dionari esaten zaio.

Ume potrosoa dok oixe! Biste askin zeok pa ze in bear den!

‘Ume potrosoa duk horixe! Bista askian zagok ba zer egin behar den!’

Abadea –Nola da Jainkoa guziz poderoso?

Ikazkille –Papa papa pipa hartuz eliz atarin dago Pello potrosoa (Astaitz, 1995: 38).

Motzaundi ‘motzandi’

Mitxelena, 1990: 64

J. Garate, *RIEV* 22 (1931), 242-244, señala explícitamente que *vasc. Motz* está bien documentado en el valor de ‘cunnus’ (= alu).

Emakumezkoei esaten zaie, maizenik neskei. Hitz tabutako jo genezake, ia irainetako besterik erabiltzen ez dena. Ez da ia behin ere zuzenean, aurrez aurre esaten. Goikoak baino gogorragoa da.

Neska motzaundi oi, ezta asko moittuko ez!

‘Neska motz handi hori, ez da asko mogituko ez!’

Orantzaro, ministro, obispo

Oraingo hauek dira sail honetan arinenak. Denek ere pertsonaiak dituzte oinarri erreferentziala.

Orantzaroak, ministroak eta *obispoak* eroso eseritako pertsonaia tripa handiaren irudia islatzen dute. Bizimodu onaren ispilu dira. Horregatik hitz hauek pertsona lasaia, patxadatsua eta aldi berean gozoa ere adierazten dute. Hala ere, gaizki hartzen ahal dira burla kutsua ere badutelakoz; askotan *zozoa*-ren adieran ere erabiltzen dira. Batez ere, *orantzaro*-k hartzen du azken adiera hori.

Testuinguru eta era bertsuetan erabiltzen dira.

Oi obispoa. Oi bizi dok oi!

‘Hori obispoa. Hori bizi duk hori!’

Ue bai orantzaro galanta! Eztok deustaz goartu re itten

‘Hura bai orantzaro galanta! Ez duk deustaz ohartu ere egiten’

4.1.7. *Berekoikeria dute ezaugarri***Eoskor** ‘egoskor’

Azpirotz, 1963: 322

Eoskor. Se diced de persona de temperamento duro y voluble

Nazka-nazka iñe nao! Orrekin eztaiteke itziin! Dios bai emakome eoskorra!

‘Naka-nazka egina nago! Horrekin ez daiteke hitz egin! Dios, bai emakume eoskorra!’

Kaska(g)or/ burugor, kaskallu, kasketoso, tenker

Gizona edaden sartuxea ta burugogor samarra izan, da eziñ etsi Barbara orrek, ta eun beten eskapatute Errezumera etorri emen tzen (Migel Ramnon Zabaletak esana. Perurena, P., 1996: 499).

OEH

Kaskallu: Terco, testarudo, de carácter fuerte. Iracundo, cascarrabias; aferrado al dictamen propio; de temperamento bruto (Asp. Leiz.).

Kontseju zarren salda atera ollo ankakin, ta ez gustatu Bordaberri kaskallu orrei! (Jose Migel Arregik esana. Perurena, P., 1996: 306).

OEH

Kasketoso: Caprichoso. Terco (Asp. Leiz). Persona a la que le dan ventolera. A su vez terco.

Tenkerra ere, bereari eusten dion sorra da.

Ño! Tenkerra izatea zer den e! Naigo lepoa autsi okerra attortu beño!

‘No! Tenkerra izatea zer den e! Nahiago lepoa hautsi okerra aitortu baino!’

Aurrez aurre esan daitezke, hala ere, *tenkerra* da hiruetan gogorrena eta aurrez aurre gutxien esaten dena.

Erokaskallu ‘erokaskailu’

Kaskailua eta eroa, alegia, berea egiten ez badu gaiztotu ere egiten da.

Esaten giñioan miñe artuko zula, beño a(r)k berea in, erokaskallu orrek!

‘Esaten genioan mina hartuko zuela, baina hark berea egin, erkaskailu horrek!’

Erdi mailakotzat jo daiteke. Aurrez aurre ere esaten da.

Setoso, temoso eta *temazu*

Zerbaiten seta edo tema hartuz geroz, hartan segituko du amorerik eman gabe.

Dios! Gizon temosoa dok oixe! Arei burun zerbaitte sartu ezkeoz, artan be- arko dik, etzeyok jainkoak e ateziko

‘Dios! Gizon tematia duk horixe! Hari buruan zerbait ere sartuz geroz, hartan beharko dik, ez ziok jainkoak ere ateraraziko’

Temazu-k adiera neutroagoa du *temoso*-k baino.

Setoso aresoarren izengoitako besterik ez da ia erabiltzen.

Arritetik Areso-betiko setatsu- (Orixe, 1972: 15).

Kaskar, kaskurrio, mallu ‘mailu’

OEH

Kaskar: Revoltoso, de mal carácter (Asp. Lei.).

OEH

Kaskurrio: Cascarrabias, de mal carácter.

Mallu berekoaia, zakarra eta gogorra denari esaten zaio.

Aditz ere bihur daitezke hauetako batzuk. Aurreko egoeraren aldaketa adierazten dute horrelakoetan (*ez euskortu ta in tzak in bea-kena* ‘ez egoskor- tu eta egin ezak egin behar duana’):

Euskortu, kaska(g)ortu, kaskallutu, tenkertu, setatu, tematu eta kaskartu

Hauk denak ere maila arinekoak dira haurrekin edo ume kozkorrekin solasean. Jende larriarekin, berriz, arinak edo erdi mailakoak izan daitezke testuinguruaren arabera. Behar bada, *erokaskallu* da gogorrena.

Okerkondo

Berekoaia eta alrebesa; *erokaskallu*-ren antzekoa.

Olaxeko okerkondoa zen Joan Austin ori, sekuleko kirtenkerik botatzen tzi- ttuna (Migel Arrizurietak esana. Perurena, P., 1996: 485).

Arin samarra da. Aurrez aurre ere esaten da.

Petral, maripetral

Genio txarrekoa, kaskailutua ... Egoera honetara ailegatzen denari *pe- traldu* egin dela ere esaten zaio.

Maripetral emakumezkoentzat da, eta batez ere, neskato edo neskatxentzat.

Ia maripetral onek zer dion? Joesus! Oi jenioa dozo neskatoa!

‘Ea maripetral honek zer dion? Jesus! Hori jenioa duzu neskatoa!’

Maripetral petral baino arinagoa da.

4.1.8. *Izaera basa, basakeria*

Asto, astakillo ‘astakilo’

Astoa, dena indarrez eta begiramen handirik gabe egiten duenari esaten zaio. Lanean leher aritzen denari ere bai. Hala ere, astoa animalia hutsa den aldetik bakarra nabarmendu nahi denean, askoz ere gogorragoa izaten da hitz irain hau.

Miñe eman diezo, astoa, ez beste astoa!

‘Miña eman didazu, astoa! Ez beste astoa!’

OEH

Astakillo: Dim. de asto (aplicado casi siempre a personas). Significa lo que ‘Pero Grullo’ en castellano (el prototipo de los simples y bobos).

Hizkera honetan areago da astoaren diminutibo hutsa, OEH-en heldu den definizioan dakarrena baino.

Astakirten, astapotro, astazakil

Hauetan astoaren indarra, edo lanerako balio handia baino areago, nabarmendu nahi izaten da,azienda honen ospe txarra, berekoia, temosoa eta amorragarria den aldetik.

OEH

Astakirten: Burro, necio, torpe, zote, majadero.

Esaterako Leitze-Leize berdintasune itten duen astakirtenan xalotasune gogorazi zidan (Sasilarrosa).

Oi astapotroa! Dena indarka in bear!

‘Hori astapotroa! Dena indarka egin behar!’

Laneako! Zerta:ko-k astazakill oi? Eztik erreminta bat osoik uzten ta!

‘Lanerako! Zertarako duk astazakil hori? Ez dik erramienta bat osorik uzten eta!’

Azinda

Astoaren parekoa da. Indarra eta lanerako prestutasuna adierazi nahi ditu. Adiera hau hutsa duenean arina da. Beste aldera izaten da aziendaren irrazionaltasuna nabarmendu nahi denean, askoz ere zentzu txarragoa eta gogorragoa hartzen baitu. Hona bi adiera hauetako erakusgarriak:

Ue, ue azinda da e! Ue eun argitzetik asi ta illundu arteño aiko zak lanen buruik goatu gabe, eta malkar aitan gañea!

‘Hura, huraazienda da e! Hura egun argitzetik hasi eta ilundu arteraino ariko zaik lanean bururik goratu gabe, eta malkar haietan gainera!’

Azinda baita, ez edukazioik ta ez deuse!

‘Azienda baita, ez edukaziorik eta ez deus ere!’

Zakar, zakarripurdi, zakartzio

Oso itsusi adierazteaz gainera, izaera basa, jendetasunik gabekoa, begiramenik ez duena, brutoa... ere adierazten dute irainetako erabiltzen direnean.

Zakartu ere egiten ahal da zentzuzkoa dena.

Zakarripurdi eta *zakartzio*-k, *zakar*-aren gordintasuna arintzen dute.

Ekusi al duk orain e ze posturatan sartu den zakartzio ori?

‘Ikusi al duk orain ere zer posturatan sartu den zakartzio hori?’

Oi zakarripurdi alakoa! Beti oyuke ai bear!

‘Hori zakrripurdi halakoa! Beti oihuka ari behar’

Aurrez aurre ere esaten dira.

Hontaz, *asto* hitzarekin konposatutakoak dira sail honetan gogorrenak. Dena dela, testuinguruaren arabera, erdi mailatik harantzago nekez iragotzen dira.

4.1.9. *Izuti, iluna*

Basapizti/ basapixti, pizti/ pixti, betizu

Hauek jendartekoa ez dena, jendearengandik ihesi dabilena adierazi nahi lukete. Horregatik jendea ikusi orduko gordetzen diren animalia hauen ize-na hartzea.

Etzakit ni ekusi nauen, beño nek ue earki ekusi dit gordetzen. Oi betizu!

‘Ez zekiat ni ikusi nauen, baina, nik hura ederki ikusi diat gordetzen. Hori betizu!’

Muker, zomorro, turko

Hauek berriz, jendartekoak ez izateari, beste ezaugarri hauek eransten dizkiote: izaera ez garbia; iluna; behar denean ere dena ezkututzen duena; us-tezko adiskideari, etxekoari eta hurbileko ahaideari ere esatekoa ezkututzen diona.

Azpirotz, 1963: 328

Muker: esquivo, hurraño.

Aren etxe ondotik irao nan, bullek somatu zetiñet, ez iñor azaldu orden. Oik zomorroak!

‘Haren etxe ondotik irago naun, builak sumatu ditinat, ez inor azaldu ordea. Horiek zomorroak!’

Turko iraina *zomorro*-ren paretsuko izanda ere, hura baino gogorragoa da. Askotan biak hala biak ere testuinguru bertsuetan erabiltzen dira. Esanenezake irain honek zomorrokeria eta zakurkeria dituela berarekin. Badirudi aintzina turkiarrek mendebaldean zuten ospe txarrari zor zaiola adiera hau.

Gutxi fia orrekin. Oi turko samarra da e!

‘Gutxi fida horrekin. Hori turko samarra da e!’

Hauek aurrez aurre ere esan daitezkeenak diren arren, testuinguru bakanetan gertatzen da halakorik.

Azkeneko azpisail honetakoak dira gogorrenak. Hala ere, testuinguruaren arabera, zomorro arina ere izan daiteke. *Turko* da, ziur aski, gogorrena. Behar bada, hau igo liteke erdi mailatik zenbait testuingurutan; beste biak erdi maila horretakoak direla esanen dugu.

4.1.10. *Inozoa*

Gaixo, gizajol/ gizaxo ‘gizagaixo’

Egun zenbait hiltunek nahiz gizonezkoentzat, nahiz emakumezkoentzat erabiltzen dituzte biak hala biak, batez ere, hiltun gazteek eta euskara ikasiak. Hala ere, gurean behinik behin, *gaixo* markatu gabea da; *gizajo / gizaxo*, be-

rriz, markatua. *Gaixo* edozeinentzat erabil daiteke; haurrentzat eta emakumezkoentzat besterik ez da erabili oraindaino, behinik behin. *Gizajo / gizaxo* gizonezkoentzat bakarria erabiltzen da

Neska gaixo (Orixe, 1972: 435).

Alaba gaixo txukun langillien Ondamendia (Orixe, 1972: 435).

Apez gizaso Iribaskoa geldi da erle bakarria (Orixe, 1972: 418).

Santa k(l)ara ‘Santa Klara’

Garbiegia dena, deus ere ezkututzen ez duena, dena esaten duena, behar dena eta ez dena, haurretatik irago ez dena.

Au santa k(l)ara! Ixilik eotten a:l die etxeoak onen aurren, onek ezto sekretoik.

‘Hau santa klara! Isilik egoten ahal dira etxeoak honen aurrean, honek ez du sekretorik’

Sail honetako guziak aski arinak badira ere, argitu beharra dago *gaixo*, *gizajo* eta *gizaxo* oso gaizki hartzen dituela zenbaitek. Hizkera honetan bada jendea, horietako edozein esanez geroz, arrunt haserretzen dena. Horrelakoen aldetik erantzun hau ohikoa izaten da:

I gizajoa i izane aiz e!!

‘Hi gizajoa hi izanen haiz e!!’

4.1.11. Inozokeria dute ezaugarri

Adingabe

OEH

De pocos años, menor de edad. Se dice del que no tiene edad suficiente para algo (Asp. Leiz). El que no tiene entendimiento, irracional.

Fundamenturik gabea, haurra... esateko erabiltzen da. Arruntean aurrez aurre ez den norbaitez mintzatzean esaten da.

Neska oi ez al da adingabe samarra?

‘Neska hori ez al da adingabe samarra?’

Arbilore ‘arbilore’, *azalore* ‘azalore’, *babalore* ‘babalore’, *astalikardo*, *babalasto* ‘babalasto’, *otsoporru*

Azpisail honetakoak oso landare arruntak dira. Hauetan, gizakiarentzako balio ezak dakarren mesprezua nabarmendu nahi izaten da. Arruntean balio eza inozokeriari lotuta ageri da gizakiei gagozkiela. Horregatik hauetako zenbaitek, inozokeriaren adieraz gain, ezdeusarena ere izaten dute.

Ixtak abori! Demono babalastoa!

‘Itxi ezak aho hori! Demonio babalastoa!’

Oi otsoporrue, ezta abion bat ondotik iragota re oartu!

‘Hori otsoporrue, ezta abioi bat ondotik iragota ere ohartu!’

Onto

Organismo honek erakusten duen egoera geldoa nabarmendu nahi da.

Au demono ontoa! Noa beide eondu aiz oi ez ekusteko?

‘Hau demonio ontoa! Nora begira egon haiz hori ez ikusteko?’

Eltze, *eltzeaurdi* ‘eltzehandi’, *gazta*, *gaztaurdi* ‘gaztahandi’, *artaburu*

Hauek denek zerikusia dute gorputzeko atal batekin: buruarekin. “Buru handia bai, baina, hutsa” da adierazi nahi dena. Horregatik, hain zuzen paratzen dira burua ispilatzen duten objektu hauek. Ez da bada, buruaren neurri fisikotik abiatzen, berdin baitio haren tamainak.

Moteko eltzeaundi orrek ezto berrize gauz onik inen

‘Mutiko heltzehandi horrek ez du berriz ere gauza onik eginen’

Bai, gazta earra dok ik e, earra gazta alper, alperrik!

‘Bai, gazta ederra duk hik e, ederra gazta alper, alperrik!’

Ganbelu

Basamortuko animalia zalkordunaren iruditik ekarria. Handitasuna eta motelkeria adierazi nahi ditu, baina, argitasun handirik gabeko pertsonari ere esaten zaio. Maizenik ezaugarri hauek denak berarekin dituenari esateko erabiltzen da.

Aurrez aurre ere esaten da.

Gogorregia ez bada ere, mesprezu handi samarra adierazten du.

Eztok ue izautzen! Bai motel! Ganbelu zontzollo ankaluze at, mantso-mantso ibiltzen dena

‘Ez duk hura ezagutzen! Bai motel! Ganbelu zontzoilo hankaluze bat, mantso-mantso ibiltzen dena’

Kaiku, mako, piperpoto, segapoto

Ontziak edo lanabesak dira. *Kaiku* beti ere, arrunt hedatua adiera honetan Euskal Herri guzian.

Alako kaikue, nondik sortu de?

‘Halako kaikua, nondik sortu da?’

Kaikutu ere egiten da.

Mako hitzak jatorrizko esanahiaz gainera, aspaldian du izenondotako ematen diogun beste adiera.

Mitxelena, 1990: 59

(...) *macu* no figura en los diccionarios vascos (aunque sí *mako* “garfio, púa, horcón, “arco”, “cayado, muleta”, etc.), pero es apellido o sobrenombre frecuentemente en la Navarra medieval: *Pero Macua, García Macua*, etc. En este empleo parece ser un adjetivo (como *Lucea, Ona, Sendoa*, etc.).

Memelo, tentel, tontolo, tortollo/ tortolo, zontzollo ‘zontzoilo’

OEH

Memelo: Fatuo, lelo, insustancial.

Antzeko adiera dute beste gainerakoek ere.

Azpirotz, 1967: 21

Tortollo: Bobalicón.

Torotollo arraioa, noa oa lastikue azpikoz gañera yantzitze?

‘Tortoiolo arraioa, nora hoa elastikoa azpikoz gainera jantzita?’

Gaur egun *tortolo* aldaera da erabiliena.

Memelotu, tenteldu, tontolotu tortollotu / torotolotu eta zontzollotu ere gertatzen diren egoerak dira:

Osota zontzollotue ao motel!

‘Osotara zontzoilotua hago motel!’

Odolki, pipermorro

Hauek ere inozo, tontoaren parekoak dira.

Arinak izanagatik, gutxitan esaten dira aurrez aurre.

Ik e polittei esan diok, neska odolki orrei!

‘Hik ere politari esan diok, neska odolki horri!’

Gogora ekarriko dugu Txomin Agirrerren Garoa eleberriko *Odolki*. Hona hartaz ematen duen deskribapena (249):

Bazan ura ere bat, beste askoren eredura. Gaztetan alper, zartzan arlote, beti berekoi ta buru ariña (...) pixkaka begiramen danak galdu zituan, arduragabekeria berrengo ondarretaraño erori zan (...). Orregatik ibilli oizan Oñatiko alderdietan bazterrik bazter, zulorik zulo, guztien morroi, danen adiskide (...) jai ta asteak berdin zituala, egunero zarpatsu, askotan soin-ale gabe, noisnai traskil, tarratadaz, koipez ta zirpillez geiegi osatua.

Ontza, ontzarmario

Hontzaren begi handi irekiak eta haren begirada pausatua aurpegi boro-bilean, irudi barregarri samarra emateaz gainera, begirada hor nonbait galdua duenarena ere eman nahi luke.

Au demono ontza! Ez al aiz oartzen adarra jotzen ai zakela!

‘Hau demonio hontza! Ez al haiz ohartzen adarra jotzen ari zaiala!’

Ontzarmario, zentzu bertsuan erabiltzen da.

Zepel, txepel, zepeltzio

Ahula, fundamenturik gabekoa, geza, gatzik gabekoa, ezereza...

Adiera bertsua dute hirurek.

Euskaldun epel-zepel-ergel bat aski euskaldunak espaiñolez aritzeko (Leitzar bat)

Haserre handietan bakarra esaten dira aurrez aurre. Bestelakoetan, bada, maila arinekoak dira.

Bestalde, *zepela arrapatu* eta *zepeldu* mozkortzea adierazteko erabiltzen dira.

Ergelantonio, zepelantonio

Konposatu hauek arinagoak dira oraindik ere. Badirudi bigarren elementuak, alegia, *antonio*-k, samurtu egiten duela irain-biraoa. Oso emankorra da osagai hau. Nahiz eta eskuarki elkarketa bertsuetan azaltzen den (honakook horietakoak), ergelkeria, zozokeria eta inozokeria adierazten duen edozein hitzi erants dakioko: *kaikuantonio*, *petralantonio*, *mengelantonio*, *memeloantonio*, *talakantonio*...

Etorri ai onea, etorri ai onea ergelantonio, eakursiko it nek nola in

‘Etor hadi hona, etor hadi hona ergelantonio, erakutsiko diat nik nola egin’

Zozo, zozokume

Lehendabizikoa erabilera handikoa da. Hotsen errepikapena: mingain gaineko bi igurzkari eta bi bokal ezpainkariak, oso egokia egiten dute maiz esateko. Adierari dagokionez, *ergela* eta *gizajo*-ren adieren arteko nahasketa da. Bestalde, arina da, nahiz eta zenbait testuingurutan gogorragoa ere izan daitekeen.

Zozokume: lehenaz gainera, *kume*-k heldutasuna eransten dio. Beraz, aurrekoa baino pittin bat gogorxeagoa da.

Liberalak ere esaten zuten “euskaldun zozo oiek, beren etxetik senideen bat apaiz ateratzea zutela espa guzia” (Orixe, 1989: 12).

Ta Santa Kruz etzan oso zozoa (Ibidem: 17).

Ara zer dakarten soldadu zozo aiek: txorikumeak artzera joanda, kabia u-tsa eskuetan (Ibidem: 22).

Euskaldun zozoak siñistu (Ibidem: 27).

4.1.12. *Izaera gaiztokoa**Alu*

Biraoetan erabilerarik handienetakoa duena. Eta hala izanik, maila arinetik gogorrenera joaten da testuinguruaren arabera. Adiskide arteko solasean xalotasunezko eta konfiantzazko izaten da:

Au alue! Oañ e ik suertea!

‘Hau alua! Orain ere hik suertea!’

Aurten partidu polittek yarri zetie e? Bergarille alu hoi, hoi duk alu hoi! (EL, LA, LO EXMO...)

Baina, bestela berriz:

Etzien andik aurrera asko kantatu, alu ark! (Mikela Sagastibeltzak esana. Perurena, P., 1996: 182).

Badago gure artean esaera bat, ospe txarreko norbaitez hitz egitean maiz esaten dena:

Alue beti alu, ta zu re bai ama

‘Alua beti alu, eta zu ere bai ama’

Barrengaixto ‘barrengaitzo’, *beleno* ‘beneno’, *zittal* ‘zital’

Hauek jasotzen dituen pertsona gaiztoa da hagitz birao igorlearentzat.

Barrengaixtoa izan bear do ori itteko e!

–Baaa, arek itteko eztok izuarrie, *beleno utse dok ta*

Barrengaitzoa izan behar du hori egiteko e!’

‘–Baaa, hark egiteko ez duk izugarria, beneno hutsa duk eta’

Ai koko zital gaiztoa! (Orixe, 1972: 452).

Erogaixto ‘erogaitzo’, *txorogaixto* ‘txorogaitzo’

Norbait erotik edo txorotik baino gehiago gaiztotik duela adierazteko erabiltzen dira.

Eroa, bai beño bere aldekoa, erogaixtoa da oi!

‘Eroa, bai, baina, bere aldekoa, erogaitzoa da hori!’

Oañ e in do orrek inkarie, nai ezta in emen do, txorogaixtoa baita, txorogaixtoa!

‘Orain ere egin du horrek eginkaria, nahi ezta egin omen du, txorogaitzoa baita, txorogaitzoa!’

Erdimailako jo genitzake. Arruntean ez dira aurrez aurre esatekoak.

Demonio, sorgin

Hurrekin erabiltzen direnean arinak izaten dira, eta badute *bihurri*-ren kutsua. Jende larriarekin erabiltzen direnean lehendabizikoa ez da arinetik iragotzen; bigarrena, berriz, gogorragoa da.

–*Baño, baño ze in tziñuen lengoan?*

–*Ze in giñun? Zuk lo in bear tziñula, ta guk e bai!!*

–*Arraio demonioak zuk!!...* (Mikela Sagastibeltzak esana. Perurena, P., 1996: 178).

Bisabuela ori, demonio utse izan bear tzun, deusekin bildurtzen etzen bargasta oritakoa (Karmen Sestorainek esana. Perurena, P., 1996: 304).

Atso sorgin oi dela medio familie ondatu de

‘Atso sorgin hori dela medio familia hondatu da’

Ardi lotsagabe ta amandre sorgiñak argi-argi utzi labaki esia (Orixe, 1972: 439).

Bigarrena nekez erabiltzen da aurrez aurre.

Lapaitz

Belar soroetan izaten den belar txarra. Belar txarrekin izaten duten gisan, zainak luze baititu eta arrunt gaiztoa baita garbitzeko, jende gaiztoari esaten zaio.

Konparaziotako ere, askotan erabiltzen da:

Lapaitze beño gaixtogoia da

‘Lapaitza baino gaiztoagoia da’

Maila arinekoa da, baina, ez da arruntean aurrez aurre esaten.

4.1.13. *Aldarte txarrekoa**Ernegatu*

OEH

Abominar, renunciar, renegar, despreciar, rechazar; adjurar, apostatar.

Jendeari dagokionean, erretxinaren paretuko da, baina, maila frankoz ere gogorragokoa.

Ernegatue da, norbaitez esaten denean, oso deskribapen makurra da hartaz egiten dena.

Oi gizonan ernegatue! Orren ondoan bizi bear dunak e, eungorri dauke!

‘Hori gizonaren ernegatua! Horren ondoan bizi behar duenak ere, egungorri dauka!’

Erretxin

Azpirotz, 1963: 323

ERRETXIN. Irascible. Gizon erretxiña ‘hombre irascible’.

Frantxes orrek bixargorrie izan bear tzun, ta ola erretxin samarra (Miguel Sukuntzak esana. Perurena, P., 1996: 182).

Erretxindu ere erabiltzen da egoera horretara iragotzea adierazteko.

Ez da, hala ere, oso maila gogorrekoa.

Erre, kizkali

Aurrekoaren pare-parekoak eta maila bertukoak.

Erne ibiltzen al aiz ze sate yioken, kizkali utse baita

‘Erne ibiltzen ahal haiz zer esaten dioan, kizkali hutsa baita’

Kopetabeltz, kokozluze, muturraundi, muturluze

Ernegatu, erretxin, kizkaliaren irudia ispilatu nahi dute hitz birao hauek.

Asarre aiko da oañ e kopetabeltz, kokozluze oi

‘Haserre ariko da orain ere, kopetabeltz, kokozluze hori’

Oi ze muturraundi da, ondotik irao ta ezta itzik e!

‘Hori zer muturrandia da, ondotik irago eta ezta hitzik ere!’

Otso

Haserre latzak izaten dituenari esaten zaio. Ondokoak eta batez ere, etxeok ikaratzetaino haserretzen denari. Isteriaraino ailegatzen da. *Kanpoan uso etxean otso* esaerari egoki lotzen zaio.

Eztozo zuk ongi izautzen, eztakizo ze otso den oi etxen!

‘Ez duzu zuk ongi ezagutzen, ez dakizu zer otso den hori etxean!’

Jarrera ere adierazten du hitz honek:

Nek eztiot esanen betire, otso politte yartzen da ba!

‘Nik ez diot esanen beti ere, otso polita jartzen da bada!’

Gogor samarra da eta ez da arruntean aurrez aurre esaten.

Purrustioso, torropoton

Purrustiak egiten dituenari esaten zaio, alegia, pertsona erretxin eta erre-aren erantzun txarrak ematen dituenari.

Azpirotz, 1963: 330

PURRUSTI. Maneras fuertes, violentas, de mal genio al hacer algo.

Torropoton. Hona *Hiztegia bi mila-k* dakarrena:

Turruputun: 1. persona arisca, refunfuñadora

Zaude ixilik purrustiosoa ta ai zattea taiun izketan

‘Zaude isilik purrustiosoa eta ari zaitez taiuan hizketan’

Etzun ba gaizki artuko, torropoton utse baita

‘Ez zuen bada, gaizki hartuko, torropoton hutsa da eta

Maila arin samarrekoak dira. Aurrez aurre ere esaten direnak.

Zipotz

Azpirotz, 1963: 331

ZIPOTZ. De mal genio. De mala calidad. Gizon zipotza ‘hombre de mal carácter’. Lur zipotza ‘tierra de mala calidad’.

Bai, zipotza, xorrotxa ta nai doken guzie izane uen, baño, oañ pentsatzen yarritte, bizitasune ematten tzeioan ark erriri (Lagun batek esana. Perurena, P., 1993: 35).

Ernegatu bezain gogorra ez bada ere, gogor samarra da.

Zipoztu egoera ere bada, eta halakoetan *zipozkeriak* egiten ohi dira.

Zapuitz ‘zaputz’

Txoriak umeak zapuiztea, kabia uztea da umeak gaitzetsita. *Zapuitzak* badu beraz, izutik eta ernegatutik. Horretatik norbait *zapuizten* denean haserretu eta furrundean alde egiten du. Tankera honetako haserreari *zapuitzaldie* ‘zaputzaldia’ ere esaten zaio.

Esne-gazuren aparra itxirik

ume zapuitza bezela (Orixe, 1972: 453).

Erdi mailako jotzen dugu. Ez da arruntean aurrez aurre esatekoa.

4.1.14. Sesiozalea***Baztarnastalle, kakanastalle***

Jende guziarekin zerbaiten ezinikusia eta istilua duenari esaten zaio. Biak hala biak adiera bertsukoak dira.

Erri onta baztarnastalle at etorri zen noizpatte, ta geoztik ez tu: pakeik

‘Herri honetara baztenahastaile bat etorri zen noizbait ere, eta geroztik ez dugu pakerik’

Kakanastalle earra oi! Ak ze bear dio arei! Pake-paken utzi besteik ez ta

‘Kakanahastaile ederra hori! Hark zer behar dio hari! Bake-bakean utzi besterik ez eta’

Arin samarrak dira. Aurrez aurre ere esaten direnetakoak haserrealdietan.

Saltsero

Azpirotz, 1967: 21

SALTSA. Lío. Saltsero, lioso. Saltsatu, organizar líos.

Gisa honetako beste hitz askoren moduan, gaztelaniazko *-ero* atzizkia hartu du.

Sesianiste ‘sesianista’ eta *sesioille* ‘sesiogile’

Beti sesio edo zezio bila dabilenari. Istiluetan sartzeko zalea denari.

Azpirotz, 1967: 20

SESIOILLE. Pendenciero.

Lehenbizikoak agerian du gaztelaniatik hartutako *-ista* atzizkia.

Okasiente

Aurrekoaren tankerakoa da. Okasio bila dabilenari esaten zaio; alegia, istilu eta sesio bila dabilenari. Hau aurrekoarekin batera, besteak baino gogorragoa da. Hala ere, aurrez aurre ere esaten dira haserrealdietan.

Erne ibilli geo orrekin, okasiente nazkaarri et besteik ezta ta!

‘Erne ibili gero horrekin okasiente nazkagarri bat besterik ez da eta!’

Tentapatxiku

Tentatzaile eta zirikatzaileari esateko era arina eta xaloa.

Oi ai bearra tentapatxiku! Utziozo paken asarretu beño len!

‘Hori ari beharra tentapatxiku! Utzi egiozu bakean haserretu baino lehen!’

Zanpon

Gorputzaren handiak ematen dion indarraz baliatzen dena, kidekoak zanpatzeko.

Batez ere, umeekin eta gaztetxoekin erabiltzen da.

Zanpon utse da motiko oi! Bestek beño aundigoa den ortan beti joka aitzen da

‘Zanpon hutsa da mutiko hori! Bestek baino handiagoa den horretan beti joka aritzen da’

4.1.15. *Fidatzekoa ez dena*

Faltso, judas

Bigarrena da gogorrena. Honek berarekin du Testamentu Berriak apostolu honi ezarritako estigma guzia.

Eta arik attu zazkiola esan ditt, baño gezurre, neonek ekusi dazkiot eta, bi karrete beltz oso osoak eta yostorratz gorri aundi bet antxe geldittu zaizkio oañik; faltso earra zen ure!! (Migel Barriolak esana. Perurena, P., 1996: 387).

Lazzarini dalako Judas saltzalle nintzala esan zidan, soldaduen eta morroien aurrean (Orixe, 1989: 92).

Gezurtero, gezurtioso

Gezurtiren aldaerak dira.

Gezurtioso markatu gabea da, eta gezurtiren ordeko zuzena da. *Gezurtero*, berriz, markatua da, eta ume kozkor eta gaztetxoekin mintzaeran azaltzen da maizenik.

Ez dira gogorrak.

Gezurtioso amorratue da, asnasa re gezurre do orrek!

‘Gezurtioso amorratua da, arnasa ere, gezurra du horrek!’

Gezurtero, gezurtero! Ik eztakik bizikletan ibiltzen!

‘Gezurtero, gezurtero! Hik ez dakik bizikletan ibiltzen!’

Kuku, ollo ‘oiló’, zakur

Kuku eta *zakur* gogor samarrak dira; maltzurkeria adierazten dute. *Zakurkerietan* ibiltzen dena da *zakurra*. Hitzun askorentzat hitz hau lehenago da izenondo eta geroago izen; alegia, zakurrari *zakurkeriaz* jokatzek ematen

dio izena askoren ustez. Ohiko esaera izaten da honakoa zakur arrotzaren bat hurbilduz geroz, eta haren nagusiak hozkarik ez duela egiten esanez geroz:

Ez fiatu, zerbattengatik do izena zakurre

‘Ez fidatu, zerbaitengatik du izena zakurra’

Zakurtu ere egiten da, egoera honetara ailegatzen denean lehen halakoa ez zena.

Kukua faltso ezkutukoagoa da; isil isilean besteren bizkar probetxu duena.

Aik kanpoan bille, auzokon bat eo ete zen beño, kukue barrenen eokio, etxeokak eamatten dirue, ue kukue!

‘Haiek kanpoan bila, auzokoren bat edo ote zen, baina, kukua barrenean egoki, etxeokak eramaten dirua, hura kukua!’

Ollo arinagoa izanagatik, badu mesprezutik ere asko. Pertsona *ollos* hegazti honek oilarrarekin izaten duen jarreraren ispilu da gizakiaren begietan, hau da; ihesi, ihesi, ezetz eta ezetz azkenean baietz esateko. Beti arrenkuretan, beti negarrez eta kexu ari den pertsona, baina, egoera hori moldatzeko eginahalak egiteko tenorea ailegatzen denean betikora makurtzen dena. Nortasunik gabekoa eta konfiantzarik ematen ez duena.

Sar tzattea makill autsikin! Ollo utse da. Gizonak bizimodu txar ikeraarrie ematten ziola ta, senidek bere alde aurre in tzioan gizonari, ta ordun gizonan alde jarri bera

‘Sar zaitetz makilla hautsiarekin! Oilo hutsa da. Gizonak bizimodu txar ikaragarria ematen ziola eta, senideak bere alde aurre egin zioten gizonari, eta orduan gizonaren alde jarri bera’

Jito, jito zuri

Jito ‘ijito’ hitzak bi adiera ditu: zarpail gaizki jantziaren eta tratulari faltuarena. Ijitoena gure gizarteak baztertutako gizataldea da. Bestalde, tratulariak izan dira usadioz, eta tratularizkoari engainua ere eransten ohi zaio. *Jittoa* deitzen zaio, salerosian, negozio ez oso txukunetan legearen mugetan aritzen denari, eta hauetarako gizatasunezko arauak betetzeari garrantzia handirik ematen ez dionari.

Auskalo ze saltsatan dabilen! Oi jito aundie dok geo e!

‘Auskalo zer saltsatan dabilen! Hori ijito handia duk gero e!’

Jito zurie irainak *jitoak* baino gogortasun maila handiagoa du; *jito* hutsa baino faltuagoa dela adierazi nahi denean gaineratzen zaio *zuri* izenondoa. Azken buruan nola bata, hala bestea ijito arrazako ez den jendeari esaten zaizkio. Baina, *zuri* izenondoak nabarmendu nahi du zuria izanagatik ijittoa baino okerragoa dela.

Askotan entzunak gara honakoa:

Jito zurie jittoa beño askoze okerragoa da

‘Ijito zuria ijittoa baino askoz ere okerragoa da’

Aurrez aurre ere esaten dira; *jito zuria* gutxitan.

Erdi mailakoak direla esanen genuke.

Pitxitxi

Ale berezia, maila moral eskasekoa; erderazko harri bitxia edo ‘perla’-ren zentzuan.

Orrek itteko ezta izuarrie, pitxitxi politte da ba!

‘Horrek egiteko ez da izugarria, pitxitxi polita da bada’

Badu, hala ere, adiera xaloagoa haurrekin eta erabiltzen denean batez ere.

Santu

Hitz honen adiera, hain zuzen ere, izaera horrek bete beharko lituzkeen bertute guzien kontrakoa da, edo beti ere ez hain aldekoa.

Bai ni olakoa, i berriz santue, alu earra bai bayaiz i!

‘Bai ni honelakoa, hi berriz santua, alu ederra bai bahaiz hi!’

Askotan esaten dena, norbait uste bezain ona ez dela adierazteko:

Bai santue beño yaten dUNETAKOA oi re!

‘Bai santua, baina, jaten duenetakoa hori ere!’

Arin samarra da.

Ustel

Ustelak faltsutasunaren barrenean baditu bi adiera bederen, hurbilekoak, baina doi bat desberdinak: gogorrean, ezein maila moralik gabeko pertsona adierazi nahi du; bestela, berriz, kemenik gabea.

Dios! yende ustela bizi don erri alu ontan! Ekusi ze pasatzen ai dien, beño iñor ez yoaten launtzea!

‘Dios! Jende ustela bizi dun herri honetan! Ikusi zer pasatzen ari diren, baina, inor ez joaten laguntzera!’

Ustela, ustela! Ustela baita, aba zabalduite bai kontu asko beño geo deus itteko potroik ez!

‘Ustela, ustela; ustela baita, ahoa zabaldua bai kontu asko, baina, gero deus egiteko potrorik ez!’

Zuri

Fidatzekoa ez den jendea, ongiegi ohitutakoa, hitz gozozalea, beratza lanerako... Honakoak tankera horretakoen berri emateko maiz erabiltzen diren esapideak:

Urdaye beño zurigoa

‘Urdaia baino zuriagoa’

Izketa zurigie dik orrek

‘Hizketa zuriegia dik horrek’

Erne orrekin! Zurigie da izketan gauz(e) oneako!

‘Erne horrekin ! Zuriegia da hizketan gauza onerako!’

iZuri esango zianet, “paltso” esatea bezala baita (Orixe, 1987: 76).

Azal uts zuriak! (Ibidem).

Euskaldun ziralako, zuri paltso etziralako (Ibidem: 86).

Arin samarrak dira, baina, gutxitan esaten dira aurrez aurre.

Losintxepurdi ‘losintxaipurdi’, *epurgarbitzalle* ‘ipurdi garbitzaile’

Zurikerietan ibiltzen denari esaten zaio.

Bai, bai arei iñe yozo zok mesedea; losintxepurdi baitza zu!

‘Bai, bai hari eginen diozu zuk mesedea; losintxapurdi baitzara zu!’

Oixe bai! Nausiri ezti ezetzik esa:n ez, lepoa autsiko bado re! Epurgarbitzalle arra oi!

‘Horixe bai! Nagusiari ez dio ezetzik esanen ez, lepoa hautsiko badu ere! Ipurdi garbitzaile ederra hori!’

Lehendabizikoa bigarrena baino arinagoa da eta, aiseago esaten da aurrez aurre.

4.1.16. *Hitz jario handiegiko pertsona**Berrizu eta berritsu*

Oso hitzuna denari esaten zaio.

Berritsu-k adiera xaloagoa du; haurrekin erabiltzen da askotan.
Aul ezer-ez berrizu! (Orixe, 1989: 171).

Ereta

OEH

Lloriqueo de niños. Ruido, griterío confuso producido por las voces de personas que hablan al mismo tiempo. Soñue edo hotsa (As. Leiz.); ruido de algo, lloriqueo de niños. “Horren eretak aspertzen nau. Beti ereta honekin”. Izeta, B. Hizte.

Erabat kontu berarekin tematua ari denari *ereta* ere esaten zaio, bereziki, haserrea sortzen duenean tematze horrek.

Ez ote za ixilduko ereta gaiztoa ez bestea!

‘Ez ote zara ixilduko ereta gaiztoa ez bestea!’

Ayenen geundela an ai uen sekuleko marmaritan da, Bernabek esan tzioan:
 –*Jesus motel, ori gizonan ereta!*

Ta Bernardino orrek seittun:

–*Bai bakoitza bereta: i, ereta, ta ni neretaa* (Fermin Azpirozek esana. Perurena, P., 1996: 128).

Kaferrota ‘kafeerrota’, *karraka*, *talaka*, *zintzarri*, *yoale*, *kalaska*

Isildu gabeko soinua eta hotsa egiten duten tresnak dira hauek. Hizketan eten gabe ari denak hauen irudia hartzen du.

Joaleak eta *kalaskak* zintzarri motak dira. Hauek isiltzen direnean ere, mututu egin direla esaten da. Bestalde, soinua eginarazten diena mihia da (badajo).

Oi karraka da emakume oi, buruko miñe ta dena erain dit

‘Hori karraka da emakume hori, buruko mina eta dena eragin dit’

Josus au talaka! Ez al tza aspertzen atertu gabe izketan?

‘Jesus hau talaka! Ez al zara aspertzen atertu gabe hizketan?’

Haurrei edo ume kozkorrei bakarria esaten zaie aurrez aurre.

Tartarra

Onomatopeikoa da, *tar-tar* solasean ariztetik heldu dena.

Ue ixille! Bai zea! Tatar earra da!

‘Hura isila! Bai zera! Tartar ederra da!’

Aurrez aurre ere maiz esaten da.

Latoso

Erderazko adiera bera du, alegia, isildu gabe lata ematen duenari esaten zaio.

Latoso samarra aiz i e!

‘Latoso samarra haiz hi e!’

Sail honetako guziak maila arinekoak dira.

4.1.17. *Mintzaira gaiztokoa*

Enbustero/ a

Gaztelaniaz erabiltzen den zentzu berean erabiltzen da.

Enbustera earra i! Fizatzea zeon irekin, kontuk esaten bai abillidadea!

‘Enbustera ederra i! Fizatzea zagon hirekin, kontuak esaten bai abildadea!’

Hala ere, adiera samurra eta xaloa hartzen du haurrei esaten zaienean:

Zeñen umen politte duen! Enbustero politte, nola parra itten don!

‘Zeinen umearen polita duten! Enbustero polita, nola barre egiten duen!’

Eamanekarri 'eramanekarri'

Kontuak batetik bestera eramaten dituen. Gaztelaniazko *correvedile*-ren parekoa da.

Zertako esan diozu ori? Onozkeo baaki bestek, oi den eamanekarrie!

'Zertarako esan diozu hori? Honez gero badaki besteak, hori den eramane-
nekarria!'

Gaizkiesana

Gaizki esanka aritzen den pertsona.

Hauxe maldiciente hitzaz Placido Mugicaren hiztegian aurkitu duguna:

Maldiciente 1. detractor, murmurador = maxiolari, gaizkiesale, mar-
dailari, mii-zorrotz, mingain gaizto, gaitz-erasle, murdurkari, murdutu,
gaitzetsi, gaizki esan = gaizkiesaka.

Gaizkiesan ikearrie da, eluke ola ai bear etxeoataz

'Gaizkiesan ikaragarria da, ez luke horrela ari behar etxekoez'

Esanerreza, mingañarin 'mingainarin', *mingaintzikin* 'mingaintzikin'

Jendeaz errazegi aritzen den pertsona. Eskuarki besteak aisa juzkatzen di-
tuena.

Bai esanerreza dela! Orrek zer daki zeñek in dun artaz ola aitzeko!

'Bai esanerraza dela! Horrek zer daki nork egin duen hartaz horrela ari-
tzeko!'

Mingaiñariñe da aitz! Aisegi aitzen da yolasen

'Mingainarina da hagitz! Aisegi aritzen da solasean'

Aurrez aurre ere esaten dira. Erdi mailakoak dira.

Ereje 'herese'

Hitzaren jatorriari dagokion gisan, gai tabuez mintzatzen denari esaten
zaio. Gehienetan erlijioa eta haren instituzioen aurka solasten denari direla
apaizak, dela Aita Santua, dela dotrina...

Isilik zaude erejea! Aitzen baitzue ze san bear due!

'Isilik zaude heresea! Aditzen badizute, zer esan behar dute!'

Aurrez aurre askotan esaten da. Arin samarra da.

Kanpoeder

Norbere etxeaz, herriaz, auzoaz, ahaidezkoen kanpoko guzia ona duena.
Beraz, hurbilekoa gutxiesten du kanpokoaren aldean. Handinahikeria puska
bat ere adierazten du.

Hitz honekin esapide hauek osatzen dira:

Kanpoeder etxekalte

Kanpoeder barrenuts

Ene! Kanpo-eder eder asko (Leitzar bat).

Aurrez aurre ere esaten da. Arin samarra da

Kontakatillu 'kontakatilu'

Salataria. Gaur egun jende larriarekin baino gehiago erabiltzen da hau-
rrekin eta gaztetxoekin.

*Oraingoz makilzartako ederrak artu bear dituk ispia edo kontakatillu egi-
ten abillelako* (Orixe, 1989: 40).

Aurrez aurre ere esaten da. Arina da.

Kuzkuzero/ a

Zurumurrean eta kuzkutzean bazterrak nahasten eta besteen kontuak
ikasi nahian ibiltzen den pertsona.

Kuzkuzero alakoa! Esan bear dokena garbi esan tzak!
 ‘Kuzkuzero halakoa! Esan behar duana garbi esan ezak!’

Arin samarra da.

Mizto

Hau da ziur aski ere, hauetan gogorrena. Tankera honetako pertsonaren hizketak pozoia dario sugedorriaren miztoari bezala.

Ikaatue geldittu naiz, aizo, oi miztoa emakome orrena, ze esan dazkio giza-joai!

‘Ikaratua gelditu naiz, aizu, hori miztoa emakume hori, zer esan dizkio giza-joari!’

Ixilik zaude miztoa, ez bestea!

Nahiz eta aurrez aurre ere esaten den, ez da oso arina.

4.1.18. Hizketa iskanbilatsukoa

Argudios, batalles

Argudioa eta *batalle* hizketa ozena eta iskanbilatsua adierazteko erabiltzen dira.

Argudio latineko *argūo*-tik etorritakoa da. Eztabaida, edo elkarrizketa bizia eta ozena denean esaten da.

Oi argudioa ai duzue!

‘Hori argudioa ari duzue!’

Batalla-k bistan du erdarazko jatorria. Honek gehiago adierazten du iskanbila eta buila.

Ezta giro or, eztie ixiltzen, batalle aten ai die

‘Ez da giro hor, ez dira isiltzen bataila batean ari dira’

Izenondotako erabiltzen direnean *-s* gaztelerazko *pluraleko* atzizkia hartzen ohi dute.

Au batalles! Baietz, baietz aittu duula!!

‘Hau batailas! Baietz, baietz aditu dugula!!’

Ixilduko te za beingoan, argudios! Burue lertuko zat noski

‘Isilduko ote zara behingoan argudios! Burua lehertuko zait noski’

Bullosol a ‘builoso’

Erderazko adiera bera du, baina, mesprezu handiagoa adierazten du aurrez aurre esaten denean, arruntean beste irain gogorren baten ondoan azaltzen baita.

Bullosol, ortzaundie, ez al dik iñorrek itxi abaundi ori!

‘Builoso, hortzahandia, ez al dik inork itxi aho handi hori!’

Esapantoso eta *espantus*

Adiera bera dute eta testuinguru beretan erabiltzen dira. Erdarazko *espanto*-tik ekarria da. Neurritz gainezkako arrenkuretan eta espantuetan ari den pertsona.

Bai! Orrek esaten duna ta atariko aizea! Espantue besteik ezto, espantoso utse da!

‘Bai! Horrek esaten duena eta atariko haizea! Espantua besterik ez du, espantoso hutsa da!’

Marrus

Arrenkuraka, aieneka, beti kexu eta negarrez aritzen denari esaten zaio. Marruak behiak egiten duen hotsatik, negar zatatsua adierazi nahi du.

Haurren edo ume kozkoraren negarrari deitzen zaio horrela, batez ere, negar hori azalekoa denean.

Oik marruk umea! Aittuko ttue Parisen e!

‘Horiek marruak umea! Adituko dituzte Parisen ere!’

Au marrus! Eztizo deuse in ta!

‘Hau marrus! Ez dizu deus ere egin eta!’

Oyus ‘oihus’

Oihularia.

Esazo ixilxeo! Oyus, ez beste oyus!

‘Esan ezazu isilxeago! Oihus, ez beste oihus!’

Zalapartosol a

Pertsona zaratatsua.

Zalapartosoa aiz orreatik! Ez al dakik arrata gexeokin ibiltzen, denak esnatuko ttok!

‘Zalapartosoa haiz horregatik! Ez al dakik arreta gehixeagorekin ibiltzen, denak esnatuko dituk!’

4.1.19. Biziosoa

Gartxu

Jale txarra.

Ume gartxue da gure gizona! Ezto txitxek aña yaten!

‘Ume gartxua da gure gizona! Ez du txitak adina jaten!’

Mañosol a, mañontzi, miñontzi

Kasketosoa, kapritxosoa beti gogoak ematen diona egin behar izaten duena, bestela, kexu eta negarrez hasten dena. Umeei esaten zaie maizenik, baina, larriei ere bai, mesprezioz; izan ere, negarti kapritxosoa eta aldi berean, umea ere esaten baitzaie.

Eztao erki oittue orreatik! Dena lañeza da eta mañe. Mañontzi nazkantea!

‘Ez dago ederki ohitua horratik! Dena laineza da eta maina. Mainontzi nazkantea!’

Miñontzi, gaur egun gutxiago erabiltzen da eta erabiltzen denetan mañoso edo mañontzi-ren adieratik hurbilago dago Azpirotzek (1967: 17) zekarrenatik baino:

Persona enfermiza

Nolanahi ere, mesprezuzkoa da eta beti arrenkureka ari denaren izaera gaitzetzeko erabiltzen da:

Miñontzi galanta oi! tabernan da earke ibiltzen da ba! ezto miñ aundiik izaten ortaako!

‘Minontzi galanta hori! Tabernan eta ederki ibiltzen da bada! Ez du min handirik izaten horretarako!’

Erdi mailakoak dira. Aurrez aurre ere esaten dira.

Maskuri

Aurrekoen tankerakoa da. Beti negarrez ari denari esaten zaio.

Nearrez ze uste zo kontsegittu bea tzola? Maskuri alakoa!

‘Negarrez zer uste duzu lortu behar duzula? Maskuri halakoa!’

Milike ‘milika’

Azkue

Milika: Melindroso, inapetente.

Mutil milike au nola in de oinbestekoa, erdiik ezto jaten ta
 ‘Mutil milika hau nola egin da horrenbestekoa, erdirik ez du jaten eta’
 Arina da. Aurrez aurre ere esaten da.
Kapritxosola ere sail honetakoak dugu.

4.1.20. Aseezina

Sail honetan sartu ditugunak zerikusi zuzena dute gosea eta jatearekin.

Begigose, begiluze

Nabariegi gelditzen da, ezin ezetzik esan janari, begiekin janen lituzke aurrean dituenak.

Arinak dira, baina, haserrealdietan errierta egiteko esaten dira.

Zaude pixko aten, arraio begiluzea! Seittun asiko baiga!

‘Zaude pixka batean, arraio begiluzea! Segituan hasiko baikara!’

Beño zertañoko begigosea zaan! Buka zazo lenbizi zerea!

‘Baina, zertarainoko begiluzea zaren! Buka ezazu lehendabizi zeurea!’

Arinak dira eta aurrez aurre ere maiz esaten dira.

Gosepasatu

Sekula asetzen ez dena; berea eta besterena, dena behar duena eta behin ere aski ez duena.

Aski don neska! Ez ai gosepasatue izan!

‘Aski dun neska! Ez hadi gosepasatua izan!’

Hau ere arina da eta aurrez aurre maiz esaten dena.

Tripazai, tripontzi, tripero

Tripazai tripazaki-ren aldaera da berez, nahiz eta gaur egun *tripazai* den maizenik erabiltzen dena.

Azpirotz, 1963: 335

TRIPAZAKI. Comilón, glotón.

Apez haundia zen Don Manuel, ehun eta berrogei kilotik gorakoa. Sermoiak egiterakoan mingainean larrik ez zuena eta tripazai galanta (Astaitz, 1985).

Tripontzi-k eta *triper*-k adiera bera du eta testuinguru beretan erabiltzen da.

Gaur re aparie soziedadean, ok tripontzik!

‘Gaur ere afaria soziedadean, hauek tripontziak!’

Arinak dira eta aurrez aurre ere esaten dira.

4.1.21. Diruzalea, zikoitza

Aseezinen sailean sartzeko modukoak badira ere, sail berezia egin dugu hauentzat, lokura zuzena dutelakoz diruarekin.

Arrapaola ‘harrapala’

Azkue

Arrapala: Cuanto se pueda robar.

Azkuek ageri duen adiera baino arinagoa izaten du arruntean hizkera honetan. Lapurreta ezkutuko eta legez kanpokoari baino areago dagokio ahal duen guzia harrapatzeari edo ahal duen guziaz jabetzeari, dela dirua, dela tresnaren bat, dela edozein gauza. Dudarik gabe, askotan lapurreta ere bada harrapatu behar horrek eginarazten diona, baina, ez nahita nahi ez.

*Alakoak artu emen do baserri oi. Oi arrapaola, ez ete da sekulen aseko!
Len e batto ba neikoak!*

‘Halakoak hartu omen du baserri hori. Hori harrapala, ez ote da sekula aseko! Lehen ere baditu ba nahikoak!’

Dirugose

Ez da oso gogorra ere.

Dirugose ikearrie dok; horrek, horrek lapurtuko lioke jainkoai anka!

‘Dirugose ikaragarria duk; horrek, horrek lapurtuko lioke jainkoari hanka!’

Ezinbizi

Deusekin konformatzen ez dena.

Oañ e zertako bear do orrek oi; oi ezinbizi motillek!

‘Orain ere zertarako behar du horrek hori; hori ezinbizi mutilak!’

Leor ‘lehor’, *leorpe* ‘lehorpe’

Zeken amorratua.

Ori, oi tximinin gora dien kearra beño leorragoa dok!

‘Hori, hori tximinian gora doan kedarra baino lehorragoa duk!’

–*Gaur uiski edan dot!*

–*Zuk uiski! Zeñek patu do?*

–*Zeñek patuko zun ba: nik! Amerikano leorrak izateittot nik launek*
(Martin Larrazek esana. Perurena, P., 1996: 256).

Murritz

Azpirotz, 1967: 171

MURRITZ. 1) Tacaño. 2) Serio, antipático.

*Eztik beretik paatuko ez! Nonbattetik sortuko dik, murritze politte beak
paatzeko!*

‘Ez dik beretik pagatuko ez! Nonbaitetik sortuko dik; murritza polita berak pagatzeko!’

Zimur

*Semea bereak eta bestenak beretzat behar zituen zimur amorratu horietako
koa zen* (Astaitz, 1998: 37).

Zur ‘zuhur’, *xur* ‘xuhur’

Ez ai izan ain tzurre motel! Zertako ttok diruk; trago at benik paa zak!

‘Ez hadi izan hain zuhurra motel! Zertarako dituk diruak; trago bat behinik paga ezak!’

Dirugose eta arrapaola dira gogorrentsuenak, erdi mailakoak esateko modukoak; beste gainerakoak arinak dira. Denak ere esan daitezke aurrez aurre.

4.1.22. Motela

Bare, bare motel

Izugarri motela, kemenik gabea...

Udako barek beño motelagoa aiz i!

‘Udako bareak baino motelagoa haiz hi!’

Mui ai ta in tzak zerbatte demono bare motela!

‘Mugi hadi eta egin ezak zer bait ere domonio bare motela!’

Ageri denez, aurrez aurre esatekoa ere bada; hala ere, mesprezu eta haserre handixkoa adierazten du bigarrenak, hau da, berez motela den bareari, lehenaz gainera, motela izenondoa erantsia daramanean.

Belaka

Goikoen tankerakoa, baina, beratza gainera.

Ue motel, belaka amorratue dok, menbrilloa beño belakagoa dok! Noako dok ue!

‘Hura motel, belaka amorrarua duk, menbrilloa baino belakagoa duk! Norako duk hura!’

Gatzikabea

Bat ere nerbiorik ez duena.

Emaiok alde- aldeko at, gatzikabea alakoa!

‘Eman egiok alde-aldeko bat, gatzikabea halakoa!’

Geldo

Motela.

Azpirotz, 1967: 12

GELDO. 1) Madera de árbol medio podrido. 2) Persona de poco nervio.

Alabaina, erdiustelari ezeze, sutako motela den egurrari ere esaten zaio; konparaziora, gatzainari.

Lana earke itten dik beño, geldo amorratue dok orden!

‘Lana ederki egiten dik, baina, geldo amorratua duk orde!’

Moteltzio

Motelari esateko modu arinagoa.

Au moteltzio! Oañiken or ai yaiz!, Nek onozkeo in nien bi aldiz e!

‘Hau moteltzio! Oraindik hor ari haiz! Nik honez gero egin nian bi aldiz ere!’

Zerbela

Berez, beroak jotako landare berdeak hezetasuna galtzeari esaten zaio.

Odoli kabe, zerbel arraioa! Zerbatte esan benik in tzak!

‘Odolik gabe, zerbel arraioa! Zer bait esan behinik egin ezak!’

Sail honetan erakutsi ditugunak erdimailakoetan sartzeko modukoak dira, *moteltzio* eta *geldo* ez besteak; azken hauek arinagoak baitira.

4.1.23. Lanarekin zerikusia dutenak

Alpergorotz, gorotz

Hizkera honetan alper izatearekin lokura estua duen hitza da gorotza. Barkarren bati *gorotz* esatea alperra esatea da.

Bestalde, *gorotza harrapatzea* eta *goroztea* mozkortzea ere bada.

Seitzak lanea alpergorotza!

‘Segi ezak lanera alpergorotza!’

Alperra esatea eta haren adiera duen edozein hitz, beti izaten da gogor samarra.

Aurrez aurre ere esaten da haserre handietan.

Lanberri

Lan batetik bestera ibiltzen dena sekulan lan bat bukatu gabe; lan batekin behin ere konforme ez dena.

Bai oaiñ liburu saltzen asi emen da, onozkeo badik amar urteotan boskarren lana, lanberri baita, lanberri

Arin samarra bada ere, ez da aurrez aurre esaten arruntean.

Lanpuxkar

Lan gutxi ateratzen duena; ari eta ari, baina, deus handirik egin gabe. Alperrekin baino zerikusi handiagoa du gauza ez izatearekin. Arruntean jende ahul samar edo makal samarrari esaten zaio.

Mesprezu handia adierazten du. Oro har, ez da aurrez aurre esaten.

Arek lana, bai alajañena! Lanan ariora pa:tuko balioa... lanpuxkar izuarrie dok eta!

‘Hark lana, bai alajainena! Lanaren arabera pagatuko balioe... lanpuxker izugarria duk eta!’

Hurrengo biek alferra izateaz gainera, ordenarik gabeko pertsona, lanari ihesi dabilena, besten kontura bizi dena... adierazten dute.

Alporja ‘alproja’

Beheko adibideak garbi ageri du hitz honen adiera eta erabiltzen den tes-tuingurua.

Mutila alproja hutsa zen eta ez zuen gauza onik egiten lantokian (Astaitz, 1987).

Alporja gaitze zen (Astaitz, 2002).

Bandido

Alferra, zerria, besten bizkar bizi dena...

Oi bandidoa! Andrea bialdu lanea, ta bea kolpe zoztorrik in gabe!

‘Hori bandidoa! Andrea bidali lanera eta bera golpe zoztorrik egin gabe!’

4.1.24. *Agintzeko joera***Marimandona, marimaestra, marisarjenta**

Emakumezkoaren berri emateko erabiltzen direla agerian uzten du erdarazko genero morfemak. Hala ere, euskaraz emakumezkoarena nabarmentzeko *Mari* paratzeko joera handia dago.

Marimandona ez bestea, obe ziñuke zerrorrek e zerbate inen baziño oinbeste ainddu bearren!

‘Marimandona ez beste, hobe zenuke zerrorrek ere zerbait ere eginen bazenu horrenbeste agindu beharrean!’

Dena baaki marimaestra orrek!

‘Dena badaki marimaestra horrek!’

Oi muturre marisargenta!

‘Hori muturra marisarjenta!’

4.1.25. *Lapurra***Axeri**

Lapur koxkorra da, ez handia; nondik edo handik ahal duena harrapatzen duena.

Ara yoaten bayaiz ez keo deuse bisten utzi e! Abudo damutuko zak! Ak axeri kastakoak ttok e!

‘Hara joaten bahaiz, ez gero deus ere utzi bistan e! Aguro damutuko zaik! Haiek azeri arrazakoak dituk e!’

Arin samarra, baina, ez da aurrez aurre esaten.

Bostortzekoan trebe, bostortzelarie ‘bostortzelaria’

Bostortzeko mako tresnatik ekarritakoa da, eskuaren bost hatzek lapurreta islatu nahi izaten denean hartzen duten itxura kakotuaren irudia emateko.

Ze te zabilen ue an? Bostortzekoan aiko zen

‘Zer ote zebilen hura han? Bostortzekoa ariko zen’

Erdimailakoa da. Ez da arruntean aurrez aurre esaten.

Eskuluze

Eskuarki lapur ttikiari esaten zaio; askotan etxeko gauza ttikiak harrapatzen dituenari dela jana, direla sos batzuk...

Uztan oi, eskuluze gosepatue! Txanda tokatzen zainenene yanen don eta!

‘Utzi ezan hori, eskuluze gosepatuea! Txanda tokatzen zainenean janen dun eta!’

Arin antza. Aurrez aurre ere esaten da.

Eskuzikin

Bazter guzietan zorrak dituen pertsonari esaten zaio. Franko itsusi eta gogor samarra da.

Alako eskuzikiñeri iñorrek elioke deuse eman bear! Paa tzela lenbizi zorrak!

‘Halako eskuzikinari inork ere ez lioke deus ere eman behar! Paga itzala lehendabizi zorrak!’

Erdimailakoa. Oso gutxitan esaten da aurrez aurre.

Lapurre ‘lapurra’

Hau da dudarik gabe sail honetako gogorrena. Zenbaiti lapur esatea izan daitekeen irain biraorik gaiztoena da. Beraz, gogorra da.

Lapur zerrie, non tok nee diruk?

‘Lapur zerria, non dituk nire diruak?’

4.1.26. Sexua erreferentziatako dutenak

Buztanbero, buztanero

Beti sexu kontuetan aritzen den pertsona; hartan itoa dena; besterik ikusten ez duena; prostibuloetara maiz joaten dena.

Oi ze buztanero den! Zartute re eztik beste kontuik izaten, ta Donostie yonan ezkeoz putata abudo!

‘Hori zer buztanero den! Zahartuta ere ez dik beste konturik izaten, eta Donostiara joanez geroz, putatara aguro!’

Putanero ere erabiltzen da adiera horretan.

Arina da. Aurrez aurre ere esaten da.

Gainkelari

Aurrekoen zentzu bertsua badu ere, emakumeak ukitzeko joera zakarra duenari ere esaten zaio. Hitz honekazienda arren estalketa jarrera islatu nahi du.

Ze uste din gainkelari orrek! Nai duna in dezakela eo!

‘Zer uste din gainkelari horrek! Nahi duena egin dezakeela edo!’

Erdimailakoa da. Aurrez aurre ere esaten da.

Putinga

Urdanga, puta... tankerako adieraren aldaera adierazgarria da.

Bein, errin putinga fama duen iru neskatxe orik yonan gaztaiñ biltzera ta Arroko atarin bertan asi die gatain biltzen, da Extebanek ekusi, ta anderi esan emen tzion:

–*Zoaz berrize or die putinga txar orik eta bial zattozo ortik!* (Bittori Arribillagak esana. Perurena, P., 1996: 448).

Ez da aurrez aurre esaten. Gogor samarra da.

Orain ekarriko ditugun azpisailekoek zalantzazko sexualitatearekin dute zerikusia.

Marimutil, matxorra

Mutilen jarrerak eta jokabideak ibiltzen dituen emakumezkoari esaten zaizkio. Badute alderik elkarren artean; lehenbizikoa markatua da eta nahiz neskato, nahiz neskei bakarra esaten zaie; bigarrena, aldiz, markagabea da eta emakumezko guzientzat erabil daiteke. Horretaz gainera, *matxorra* askoz ere itsusiagoa eta gogorragoa da. *Matxorra*, gaztelaniatik ekarria da eta, azienda antzuentzat erabiltzen da; behin ere beroaldirik izaten ez duten aziendetzat.

Neskato oi marimutil samarra ez al da? Beti mutikoan jokoatan ikuste-t

‘Neskato hori marimutil samarra ez al da? Beti mutikoen jokoetan ikusten dut’

–*Neskazarra geldittuko-k oi*

–*Oi motel, oi matxorra izane-k!*

–‘Neskazarra geldituko duk hori’

–‘Hori motel, hori matxora izanen duk!’

Lehenbizikoa aurrez aurre esatekoa ere bada, bigarrena ez.

Ziztor

Hau goikoen beste aldera, erdi elbarri jaiotako azienda ar estalketarako balio ez duenari esaten zaio. Azienda hauek zakila beharrean ziztor tankerako organo hila izaten dute, gernua botatzeko baizik balio ez duena eta erekiziorik izan ez dezakeena. Pertsonetan gizonezkoentzat erabiltzen da.

Oso itsusi eta gogor samarra da; mesprezu handikoa.

Mutil ziztor orrek ezetik esateko barrabilik eta neonek esan bearko zioat

‘Mutil ziztor horrek ez dik esateko barrabilik eta, neronek esan beharko zioat’

Ez da aurrez aurre esatekoa.

4.1.27. *Mozkorra*

Mozkortzio

Maiz mozkortzen den pertsona.

Mozkortzio arrayoa! Ean bear baak eorrentzat ean tzak e! Bestei utzi paken!

‘Mozkortzio arraioa! Edan behar baduk herorrentzat edan ezak! Besteiei utzi bakean!’

Arin antza da. Aurrez aurre ere esaten da.

Zanbro

OEH

Enfermedad de nabos, berzas y cereales producido por el calor y la sequía. Por extensión, “Edari-bizi geiegi eraten dezu: buiatzen zuaz; zambrotuko zera, ta ur-miñak tropepesiak gaiñean dituzu” (M. A. Iñarra, *Ezale* 1897: 356a).

Zanbro arraioa! Ez uen ur utsetik eo:n ez!

‘Zanbro arraioa! Ez zuan ur hutsetik egonen ez!’

Arina da. Aurrez aurre ere esaten da.

Zurrutero

Zurrut egitea edateko ekintza adierazteko erabiltzen den onomatopeia da. Españolez honetatik heldu dira alkoholarekin loturiko beste batzuk: *zurruten ai* ‘zurrutean ari’, *zurrutero izan...*

Zurrutero aundie uen ue, a(r)k botille ardoa ziplatzen tzien eserialdiko
 ‘Zurrutero handia zuan hura, hark botila ardoa ziplatzen zian eserialdiko’
 Arin samarra da. Aurrez aurre ere esaten da.

4.1.28. *Lotsagabekeria dute ezaugarri*

Lotsabe ‘lotsagabe’, *zorri*

Lotsagabearen irudia zorria da. Esaerak ere honela dio:

Zorrik beño lotsabe(g)oa za

‘Zorriak baino lotsagabegoa zara’

Demonio lotsabea, aldeintzak emendik gero!! (Juantxo Barriolak esana. Perurena, P., 1996: 456).

Lotsamangarri ‘lotsaemangarri’

Besteei lotsa ematen dien pertsona berak ez duelakoz. *Lotsabe* baino gorrigoa dela esan genezake. Aurrez aurre ere esaten da.

Beñipin, an dagoala, yoan da komunera, ta atea zabalik zula pixen ari dela etorri zaio Joakina “Mula” esaten tzioan neskazar aundi bet, eta errixtan artu emen tzun Martin Olloki ori:

–*Ze ai za, atea zabalik dozola, lotsamangarri zikiñe!!* (Benito Erasok esana. Perurena, P., 1996: 541).

4.1.29. *Bekaizkeria dute ezaugarri*

Ezinsofrittu

Besteen onik eraman ezin dezakeen pertsona, ezineaman handia duena alegia.

Ezinsofrittu arei ze kalte itten dio

‘Ezinsufritu hari zer kalte egiten dio’

4.1.30. *Irudipen txarrekoa*

Fiakaitz ‘fidakaitz’

Mesfidantza handikoa, esana aisa sinisten ez duena, denari zerbait behar diona...

Au fiakaitze! Ik jainkoak esanda re ez ukek siñistatuko eorrek ekusi gabe

‘Hu fidakaitza! Hik jainkoak esanda ere ez hukek sinetsiko herorrek ikusi gabe’

Gaizkipentsatu

Bai gaizkipentsatue zala mutikoa! Beño, ze aiko zen ba an, lanen tzea, lanen

‘Bai gaizki pentsatua zarela mutikoa! Baina, zer ariko zen ba han, lanean zea, lanean’

Arina da.

4.1.31. *Arte edo trebetasun handirik ez duena deustan ere; ibilera torpekoa*

Aldrebes, baldar, trakets, kankar, zaldar, zaldartzio

Denek ere sail honen goiburuan ageri den deskribapenari lotzen zaizkio. Elkarren arteko ñabardurarik egitez gerotan, azpimarratuko dugu, *trakets*, *baldar* eta *kankar* lotuago daudela trebetasun eta abildadearekin; besteek, nahiz eta horretatik ere baduten, kanpoko itxurarekin, bere buruaren utzike-

riarekin eta ibilerarekin ere lotura estua dute. Bestalde, *baldartu* eta *trakestu* gorputzaldiaren egoera txarra ere adierazten dute.

Bazen Leitzan aspaldi ez dela hil zen gizon bat *Periko zaldar* izengoitikoa.

Noa oa zaldartzio galtzak arrastan ttokela

‘Nora hoa zaldartzio galtzak arrastan dituala’

Oso zelebrea zen. Jenio bizikoa tioso, beño, nire gise traketsa zen laneako. Kaxetako nausik, Gaztañaga zarrak, ameika aldiz esaten tzion: “i baño gizon traketsagoik eztok mundun geyo yayoko (Joxemiel Arregik esana. Perurena, P., 1996: 152).

Kontuk atea: gure attek kendu zion ari bizarra urte askoan! Artako re baldarregie zen ure, ta bizarlabana gure etxen eukittu zun (Migel Zabaletak esana. Perurena, P., 1996: 264).

Kankar izenondoak adiera bertsua du, hala ere, lehenaz gainera, zakarra-rena ere eransten dio.

Azpirotz, 1963: 325

Kankarra: torpe.

Arin samarrak dira. Aurrez aurre ere esaten dira.

4.1.32. *Utzikeria dute ezaugarri*

Zabarra eta abarra

Bizitzaren edozein alderditan utzia eta bat ere ordenarik gabea den pertsonari deitzen zaio. Esan genezake utzikeria adierazten duela orokorrean. *Zabarkeria* da halakoak duen akatsa.

Dios! Bai neskan zabarra! Ola ari beño obea da etzanda eon!

‘Dios! Bai nes karen zabarra! Horrela lan egin baino hobea da etzanda egon!’

Abarra aurrekoaren aldaera da, baina, diruarekiko utzikeriari lotzen zaio. Horrelakoak duen akatsa *abarridadea* da.

Amak – Zuhurraren poltsak bi zulo

Semeak – Abarrarenak galbayek aña (Astaitz, 1995: 37).

Zikiñe ‘zikina’ ere irainetako erabiltzen da. Gehienetan konposizioan edo beste birao baten ondotik azaltzen da: *lepazikin* ‘lepozikin’, *epurtzikin* ‘ipur-dizikin’, *muturtzikin*, *ankazikin*, *marizikin*; *zerri zikin*, *alu zikin*, *lotsabe zikin* ‘lotsagabezikin’...

4.1.33. *Berezitasun nabarmeneko gizasemea*

Sailetik bereitzen den pertsona; baina, beti ere, gizonezkoaren ikuspegi-tik paratutako baloreen arabera neurtzen da berezitasuna delakoa. Beraz, ikuspegi horretatik zentzu ona izaten du erabiltzailearentzat.

Potro

Ausardia, balorea, indarra, inoren mendeko ez izatea... berarekin dituen gizasemeari esaten zaio. Gaur egun emakumezkoentzat, ere erabiltzen hasi da.

Motill oi kriston potroa dok! Iñorrek ittezkeotan orretzek iñen dik pa!

Mutil hori kritoren potroa duk! Inork egitez gerotan horretzek eginen dik ba!’

Tipo

Ohikotasunetik ate dagoena, bere gisakoa dena, ateraldi bereziak dituen-a. Askotan zelebrea ere bada.

Zenbaitetan *potro* eta *tipo* sinonimoak izaten dira.

Ordun mille duro emandare etzion iñork kantatuko bere andreri, beño ark kantatu! bai, ure re tipoa zen! (Jose Migel Arregik esana. Perurena, P., 1996: 181).

Zumeta onek "Maxkuri" omen tzien izengottie, ta esaten emen tzien Marti-koneko Yoanes zela Leitzen zen gizonik fiñena, ta, beiñ bittarten alukeri ikaragarrik itten zezkiona izakio. Yoanes ori tipo ikaragarrie emen uen (Bautista Zabaletak esanak. Perurena., P., 1996: 87).

4.2. Akats fisikoak nabarmentzen dituzte

Sail honetakoek akats fisikoren bat nabarmedu nahi izaten dute mesprezua edo amorrazioa adierazteko. Oraindaino ikusitakoak ez bezala, biraoa jasotzen duenak azpimarratu nahi den akats hauetakoren bat behar du izan.

4.2.1. Mehegi

Mehegia egotea osasun exkaxaren seinaletako hartzen da.

4.2.1.1. Konparaketetik eratorriak

Gehienetan konparaketen barrenean erabiltzen diren arren, bere gisa ere agertzen dira aldian aldian. Pertsona bere osotasunean hartzen dute:

Arialbiño 'hari albino', *arristu*, *txotxa*, *ziri*, *ziripunte* 'ziripunta'

Ari albiñoa beño meyagoa
'Hari albinoa baino meheagoa'

Ziri punte beño meyagoa
'Ziri punta baino meheagoa'

Arristue beño meyagoa
'Arristua¹⁸ baino meheagoa'

Txotxa beño meyagoa
'Txotxa baino meheagoa'

Au txotxa 'hau txotxa', *o(r)i zirie* 'hori ziria', *arialbiño txatxue* 'harialbino txatxua'...

4.2.1.2. Gorputzaren zati baten mehetasuna nabarmentzen dute

Aztalierra 'aztaliharra', *epurtierra* 'ipurdiharra', *lepaierra* 'lepoiharra'

Gorputzaren atalik agerikoenak nabarmendu nahi izaten dira beren akatsetan. Ihar izenondoak, lehorra baitu berarekin, azpimarratzen den mehetasunari mesprezua eransten dio. Norbaitez ihartua dagoela esaten denean, haragirik gabeko azal lehorra baizik ez duela ageri esan nahi izaten da.

–*Zer moduzkoa don ba, Kataliñen nobio ori?*

–*Astaitzako Bernardo bezelako epurtiar bat don neska* (Joxepa Billabonak esana. Perurena, P., 1996: 464).

Neska aztalier orrei eakutsiko nioke nek ixilik eotten
'Neska aztalihar horri erakutsiko nioke nik isilik egoten'
Lepaier ajetu alu oi yo ta garbittuko nitek antxen bertan

¹⁸ *Arristua* zitzu mota bat da. Norbait edo zerbati gaitzesteko egiten den zitzua; artzaiek ardiak mugiarazteko egiten duten zitzua.

‘Lepoihar, ajetu, alu hori jo eta garbituko niake hantxe bertan’
Gehienetan mesprezio handiz eta haserrealdietan esaten dira. Beraz, oso arinak ere ez dira. Aurrez aurre ere esaten dira.

Ankamei ‘hankamehe’, *lepamei* ‘lepomehe’... antzekoak izanagatik ari-nagoak dira.

4.2.2. *Mehe ahula*

Akal, akalamendi

Askotan elkarren ondoan eta elkarren sinonimotako erabiltzen dira hauek biak.

OEH

Akal: Flaco, persona enclenque.

Akalamendi forma hain zuzen, ez dakar OEH-k, beheko biak baizik.

OEH

Akulamendi, akelemendi. Escarabajo (Lucanus cervus) (usado como insulto).

Alde in tzak nee bistetik, demono akala, akalamendie alakoa!

‘Alde egin ezak nire bistatik demonio akala, akalamendia halakoa!’

Erdimailakoak dira. Aurrez aurre gutxitan esaten dira.

Bakallo ‘bakailo’

Gorputzez eskasa, mehe ajeatua adierazi nahi luke.

Atso bakallo ori! Mingañekin bai abillidade latza!

‘Atso bakailo hori! Mihingainarekin bai abilidada latza!’

Gogor samarra da; mesprezu handikoa. Ez da, eskuarki, aurrez aurre esaten.

Makal

Motela, ahula, odolik gabea, makal zuhaitzaren gisakoa sutarako.

Idi gorri makal bat

Daukat ikulluan (Orixe, 1972: 477).

Erdi mailakoa da. Aurrez aurre ere esaten da.

Mengel

Azkue

Cosa efímera, persona débil.

Mesprezu handiz esaten da. Irain hau esatean eskuarki g belarea indarrez ahoskatzen da mesprezua azpimarratzeko.

Mengel ezezea, uxea!

‘Mengel ezereza, uxea!’

Erdi mailako dela esan genezake. Aurrez aurre ere esaten da.

Miko, moko, zozomiko

Jale txar, ahul, aurpegi txorroxtu eta bisaje txarrekoari esaten zaizkio.

OEH

Miko: Pequeño, insignificante; melindroso en el comer.

Bai neskato mikoa, ezto txorik aña yaten

‘Bai neskato mikoa, ez du txoriak adina jaten’

Ze yate itten ete dok ik, dena mutur txorroxtue ao, moko!

‘Zer jate egiten ote duk hik, dena mutur txorroxtua goko!’

Arin samarrak dira. Jende larriarentzar baino gehiago erabiltzen dira haurrentzat eta gatzetxoentzat. Aurrez aurre esaten dira.

4.2.3. *Ttikitasuna*

Ale, gatzpotto, kattakume ‘katakumea’, *ñaño*

Arrunt pertsona ttikia. Azken biak konparaziotan ere erabiltzen dira maiz.

Gatzpottoa gatz alea da. OEH-an *potor* ‘borobille’ eta ‘bola pequeña’ adieran dakar Ultzamako euskaran. Gurean halaxe erabiltzen da *portto* edo *potto* (*gatzpotto* lekuko).

Au alea, onek ze in bear ote do, gatzpotto añekoa da ta

‘Hau alea, honek zer egin behar ote du, gatzpotto adinakoa da eta’

Oi gatzpottoa, kattakumea beño ttikigoa da ta

‘Hori gatz pottoa, katakumea baino ttikiagoa da eta’

Demono ñaño kakazue, ze ai yaiz esaten!

‘Demonio ñaño kakazua, zer ari haiz esaten!’

Ñaño ez besteak arin antzak dira. Hau aurre-aurre esaten denean amorrazio eta haserre handia adierazteko izaten da. Besteak ez dira arruntean aurrez aurre esaten.

Ankamotza ‘hankamotza’, *lepamotza, zato* ‘zahato’, *zepote*¹⁹

Izenondo hauek hartzen dituzten pertsonak altueran ttikiak izanagatik, ez dira zergatik kaxkarrak izan, sendoak ere izan daitezke; azken biak hain zuzen, sendotasuna edo loditasuna ere nabarmentzen dute.

Ze ai da esaten zepote, zato oi!

‘Zer ari da esaten zepote, zahato hori!’

Ik, ik, ze in beayok orrei, lepamotz, ankamotz arraio orrek! Ze uste-k, ue zer dela kattakumea?

‘Hik, hik zer egin behar diok horri, lepomotz, hankamotz arraio horrek! Zer uste duk hura zer dela, kattakumea?’

Ankamotxa edo *lepamotxa* arinagoa da askoz ere, nahiz eta ez diren ia behin ere aurrez aurre esaten. Bestelakoan, goian ikusi ditugunak ez dira ari-negiak; muga horretan aurkitzen dira, beti ere donaearen eta testuinguruaren menpe.

Aurrez aurre ere esaten dira.

Zentzu onean *motza* eta *mozkotea*²⁰ erabiltzen dira ezaugarri hauek di-tuenari esateko.

Triskillinpoto, kiliportto

OEH

Traskil (Lar., Hb ap, Lh, H (G). Flojo. “Desmadejado”, “desvaído” Lar “Gizon traskilla, homme sans énergie ni courage, comme tombéen défai-llance” H.

Triskil sinonimotako dakar hiztegi honek.

Ordueko abadea Iribarren apellidoa zuna omen tzen, ta aren anaïen bat, “Joxerramon abadena” esaten tzioana, Ameriketan da ibillie, triskillinpoto samarra izan bear zun (Migel Zabaleta Lizarragak esana. Perurena, P, 1996: 89).

¹⁹ Zuhaitz ipurdia edo enbor puska egur txikitzeo azpian jartzen dena.

²⁰ *Neska motza, mutiko mozko*te maiz erabiltzen dira, ez ordea, birao edo irainetako.

Oi kiliporrtto, oañ e okerreko zapatak yantzi tto

‘Hori kiliporrtto, orain ere okerreko zapatak jantzi ditu’

Azken hau oso arina da; badu xalotasun kutsu doi bat ere.

Arin samarrak dira. Lehenbizikoa ez da eskuarki aurrez aurre esaten.

Muxarra/ muxarro

Ttiki mehe, arin eta mutur txorrotxari esaten zaio. Muxarraren irudia be-
reganatzen du hitz honek.

Bestalde, gaztelaniazko generoko *-o* morfema hartzen du gizonezkoei esa-
teko erabiltzen denean.

Noa kristo die muxarro oi, ez al do lanik emen?

‘Nora kristo doa muxarro hori, ez al du lanik hemen?’

Xa(b)or

Ttikia, eskaxa, ezdeusa; zaborraren gisa ez du deusetarako balio.

Hortaz, mesprezu handia dela esan genezake.

*Xabor utse dok kakazu oi, zurrute pixko at iñ ezkeoz, aste-k seittun atxapa-
rra bota nayan*

‘Xabor hutsa duk kakazu hori, zurruta pixka bat eginez geroz, hasten duk
segituan atxaparra bota nahian’

Erdi mailakotzat jo genezake. Oso gutxitan esaten da aurrez aurre.

4.2.4. Gizena

Basittu ‘basitu’

Azpirotz, 1963: 320

BASITU. Pasarse por la humedad. Aurtengo eurite onek artoak eta gariak
basitu ditu.

Alkoholak edo gizen gehiegizkoak puztutako pertsonari esaten zaio *basi-
ttue* ‘basitua’.

Gizendue esane zo! Earki gizendue dao, dena basittue dao!

‘Gizendua esanen duzu! Ederki gizendua dago, dena basitua dago!’

Erdimailakoa da. Ez da aurrez aurre esaten.

Enbor, puske ‘puska’

Pertsona lodia, gizona ere badena.

Enbor aundie joan da, joesus ori puske dao! Izaan da eun bet kilo benik!

‘Enbor handia joan da, joesus hori puska dago! Izanen da ehun bat kilo
behinik!’

Oi puske, larru beten dao!

‘Hori puska, larru betean dao!’

Arin samarrak dira. Gutxitan esaten dira aurrez aurre.

Fardell pardel, zakuto, mordollo

Motza eta gizona; borobildua.

Bi aurrenekoak forma hori hartzen duten gauzetan oinarritzen dira.

Ori zakuto/ ori fardela! Gizenegi zeok oi lasterkako

‘Hori zakuto/ hori fardela! Gizenegi zagok hori lasterkarako’

Azpirotz, 1967: 17

MORDOLLO. Apelotonado. Odai mordolloak, nubes apelotonadas en
forma de montañas.

Neska mordollo au, lo geldittuko zau gañea!

‘Neska mordoilo hau, lo geldituko zaigu gainera!’

Arin samarrak dira. Ez dira aurrez aurre esaten.

Tripaundi ‘tripahandi’, *tripazaku*, *tripustel* ‘tripaustel’

Tripazaku eta *tripustel tripaundi* baino gogorragoak dira.

Gure aitona zenari horrela egiten omen zion desafio mutiko kozkor bategarri, gaizatakeria egin eta urrutixeagotik:

Etorri ai onea, demono tripaundie, etorri ai onea potroik balen baak

‘Etorri hadi hona, demonio tripahaundia, etorri hadi hona potrorik baldin baduk’

Beño, alako tripazakue, eunen baten lertu iñen dok!

‘Bina, halako tripazakua, egunen batean lehertu eginen duk!’

OEH

Tripustel. 1 Glouton, gourmand, grand mangeur H. 2. (Lh), tripa-ustel (T-L, P Muy) “Faux bonhomme” Lh y T-L. “Tripa ustel, bentre pourri. Traître” Larr. GH 1973, 73. “Hipócrita, falso” PMuy.

Tripustel, kabron oi, naigo nitek lertuko balitz, ara!

‘Tripa ustel, kabroi hori, nahiago niake lehertuko balitz, hara!’

4.2.5. Beste akatsaren bat

Ajetu

Tisikoa.

Irainetako erabiltzen denean gogor samarra da. Askotan umerik izan ez dezakeen gizonezkoari edo emakumezkoari esaten zaio mesprezu handia eta amorrazioa adierazteko. Aurrez aurre ere esaten da haserrealdi handietan.

Neonek garbittuko at i, ajetu gaizkiyayoa!

‘Neronek garbituko haut hi, ajeatu gaizkijaioa!’

Buruaunderi ‘buruhandi’, *belarriaunderi* ‘belarrihandi’, *hortzaunderi* ‘hortzandi’, *su:rraunderi* ‘sudurrandi’, *epurdiaunderi* ‘ipurdiaunderi’

Ezaugarri hauetakoren bat duen pertsonari esaten bazaio ere, berezkoaz gainera, handitu egiten da akatsa.

Buruaunderi zerrie, ze ai yaiz esaten i netaz?

‘Buruhandi zerria, zer ari haiz esaten hi nitaz?’

Testuinguru bertsuetan erabiltzen dira denak. Gehienetan beste irain mordo batekin esaten dira.

Surraunderi alu gaizkiyayoa!

‘Sudurrandi, alu, gaizkijaioa!’

Beste irainen baten ondoan agertzen direnean, haren indargarri izaten ohi dira. Gisa horretan eratzen den irain elkarketa gogor antza izaten da.

Haur eta ume kozkorrek maiz erabiltzen dituzte elkarriz burla egiteko.

Aurrez aurre ere esaten dira.

Exkel

OEH

Bisojo, atravesado de ojos; exkel, begi exkela, miope.

Okotz aundia, begi-ekela, galbaia aiñeko ezpaiña (Orixe, 1972: 92).

Arin samarra da. Goiko adibidean bezala aurrez aurre esaten denean gogor antza da burlatako hartzen delako.

Horzmaquets ‘horzmaquets’

Jende larriari zuzentzen zaionean itsuski da. Horrelakoetan, gehienetan irain multzo baten barrenean agertzen da.

Orzmakets, belarriaundi, zepela

Bestela, haurrei esateko hitz samurra eta losintxazkoa besterik ez da.

Kankallu ‘kankailu’

Gorputz handi eta traketskoa.

Gu Katalintxonon bizi giñen ta Evaristo berriz, Txonkonon. Ordurreko pranko zartue, gizon altu bet zen, kankallu samara ta zimela (Emilia Azpiroz Irazustak esana. Perurena, P., 1993: 30).

Arina da. Aurrez aurre ere esaten da.

Mingaimotz ‘mingainmotz’

Nahiz eta mingainmotzak ez izan, mintzatzeko edozein akats duen guziari esaten zaio era honetan, hartaz gaizki esan nai denean; batez ere, hizketa motel samarra baldin badu.

An aiko zen erde darioan mingainmotz, zikiro oi!

‘Han ariko zen lerde darioan mingain motz, zikiro hori!’

Erdi mailakotzat jo genezake. Arruntean ez da aurrez aurre esaten.

Zalkor

Konkor eta konkordunaren sinominoa da. Hala denari ere, ez zaio sekula halakorik esaten. Alabaina, beste biraoren baten ondoan azaltzen bada, irain itsusia izateraino ailega daiteke.

Zalkor maarikatue alakoa! E-tzeyek berrize zirie sartuko ez!

‘Zalkor madarikatua halakoa! Ez zidak berriz ere ziria sartuko ez!’

Erdi mailakoa dela esan genezake. Arruntean ez da aurrez aurre esaten.

4.3. Itxurari dagozkion akatsak nabarmentzen dituzte

Jito ‘ijito’, *mostra*

Ijito jendeak gure irudipenean izan duen itxura islatzen du, alegia, gaizki jantzia, zikina...

Jito utse da! Beti galtza zar oikin ibilli behar!

‘Ijito hutsa da! Beti galtza zahar horiekin ibili behar!’

Mostra jito-ren tankeran erabiltzen da.

OEH

Mostra: Muestra, señal, indicio.

Beño au mostra! Eantz itzo zarp-oik nek ezittekon bat in beño len!

‘Baina, hau mostra! Erantz itzazu zarpa horiek nik ezegitekoren bat egin baino lehen!’

Arinak dira. Aurrez aurre ere esaten dira.

Kimazu ‘tximazu’, *zoldazu*

Kima²¹ luze eta zikinak duen pertsona. Jakina baita, ile luzea izate hutsak bidea ematen du hitz hau erabiltzeko.

Zolda gorputzari itsatsitako zikin geruzari esaten baitzaio, mesprezuzko hitza da zoldazu.

Sei zak etxea zoldazu kimazue, lepondo zikiñ oi garbitzea!

‘Segi ezak etxera zoldazu kimazua, lepondo zikin hori garbitzera!’

²¹ *Kima* = *zima*.

Umei esaten zaizkienean, biak hala biak ere arinagoak dira larriei esaten zaizkienean baino. Aurrez aurre ere esaten dira.

Marizikin

Eskuarki neskato eta neskatxei esateko erabiltzen da.

Oañ e eskuk gabitu gabe bazkaltzea, marizikin!

‘Orain ere eskuak garbitu gabe bazkaltzera, marizikin!’

Arina da. Aurrez aurre ere esaten da.

Politerruti ‘politurruti’

Itsusia, polita izateko urruti dela, asko falta duela esan nahi du. Samurtasunez esaten da, ez zentzu txarrean. Haurrei esateko erabiltzen da maiz.

Au politerruti! Nola asi den dabaneko hitziin naiien!

‘Hau politurruti! Nola hasi den dagoeneko hitz egin nahiean!’

Arrontean, hurrei esateko besterik ez da erabiltzen aurrez aurre.

Zarpalle ‘zarpaila’, **zarpazu**

OEH

Trapo, harapo.

Orixek janzkeratik harago hedatzen du hitz honen adiera.

Arteraño ala bizi bear

Zirpil zarpil (Orix, 1972: 444).

Prantxexek ere zertzuk esan oi ditute beren izkera xarpil orren alde! (Orix, 1987: 198).

Azpirotz 1967: 23

ZARPA. Andrajo. Zarpak yan. Lit., comerle los andrajos. Zarpazu, andrajoso.

Arropa pixko at ez itteatik ola ibilli bear zarpazu oi!

‘Arropa pixka bat ez egiteagatik²² horrela ibili behar zarpazu hori!’

4.4. Mespuzua baizik ez dute adierazten

A(g)ure, atso

Hizkera honetan bi hitz hauek esanahi bertsua dute; bata gizonezkoentzat, bestea emakumezkoentzat.

Azpirotz 1967: 7

AGURE²³. Anciano, viejo. Tono despectivo.

Gure etxean honakoa esaten zigan maiz amonak atsedendaldi bat hartzera sukaldetan biltzen ginenean:

Ez ete due aure ok iñoa lekutu bear lanea?

‘Ez ote dute agure hauek inora lekutu behar lanera?’

Ara atso sorgiña, alper berrilari (Orix, 1972: 439).

Arin samarrak dira. Aurrez aurre ere esaten dira.

Epurtzikin ‘ipurdizikin’, **kakazu**, **lerdezu**, **makarzu**, **mukizu**, **muturtzikin** ‘muturtzikin’, **zorrizu**

²² Arropa egitea = arropa erostea.

²³ Azkuek gipuzkerarako ematen du adiera bera (1984: 14): “Anciano. En G. se toma esta palabra como despectiva”.

Hauek denak ere, oso maiz erabiltzen dira haur eta ume kozkorrekin. Haurretan ohikoak diren egoerak erakusten dituzte. Haserrea adierazteko erabiltzen dira, baina, arinak dira.

Epurtzikin, muturtzikin eta kakazu loxintxazko hitzak ere izaten dira haur ttikiei esaten zaizkienean.

Besterik da, ordea, jende larriari halakorik esaten baldin bazaio; haserreaz gainera, mesprezu handia azaltzen baitute. Jende larriarekin denek ere maila bertsua hartzen dute.

Obe yukek ixilik eonen baitz, erde darioan zar-zar-zar ai bearren, demono erdezue ez bestea!

‘Hobe huke isilik egonen bahintz, lerre darioan zar-zar-zar ari beharrean, demonio lerdezua ez bestea!’

Ume makartzu orik ze ai die or! (Fermin Azpirozek esana. Perurena, P., 1993: 38).

Ta eztakit zer, ta bakit zer ta, Jesukristonak erdi erdaz erdi euskaz esan, da: “–Perdonen ustedes, perdonen! Cuanto es? Cuanto es? Es que no me hacen cosa buena, ume kakazuok. . .” (Itziar Sagastibeltzak esana. Perurena, P., 1996: 350).

Ume zirtzil mukizu (Orixe, 1972: 171).

Gogor samarrak dira jende larriari aurrez aurre esaten bazaizkie.

Errekuxe

Azpitotz, 1963: 323

Res de ganado que no se ha vendido por algún defecto.

Hizkera honetan zerrikumei dagokienean erabiltzen da gehien batean. Pertsonari halakorik esaten zaionean mesprezios betetakoa da.

Egun, adineko jendeak eta nekazal girokoak baizik ez du erabiltzen.

Gogor samarra da.

Mixerable, errekuxea bota zioan muturrera

‘Mixerable, errekuxea bota zioten muturretara’

Eskas, mixerable, yendaje ‘jendaje’, *yentillaje* ‘jentilaje’

Ustezko parametro moraletara ailegatzen ez den pertsona edo jendea.

Ainbeste urten ameriketan ibillite deuse gabe etorri gizona! Motellek eskasa aiz ongi! (Juan Zabaletak esana. Perurena, P., 1996: 239).

E nien uste ain mixerablea itzela! Urrena ze inen diuk, etxea kendu!

‘Ez nian uste hain miserablea hintzela! Hurrena zer ginen diguk, etxeari su eman!’

Kalamidade

Eskasa eta gauza onik egiten ez duena. Gaur egun erabilera handikoa da gaztelaniatik mailegatutako hitz hau.

Arrittu itte al tzak? Ze inen tzien ba kalamidade ark!

‘Harritu egiten al zaik? Zer eginen zian bada, kalamidade hark!’

Arruntean erdimailakoa izaten da. Aurrez aurre ere esaten da.

Ezeeza ‘ezereza’

Ezer-etik heldu da eta ezer ez dena, deusetarako balio ez duena adierazi nahi du.

Hitz hau hizkera honetako hiztegian mantendu bada ere, ez da hizkera honetan ezer izenordainik.

Baño soldadu aul ezerez bat (Orixe, 1989: 66).

Emen negok? Zer bear dezue? Aul ezerezak! (Ibidem: 87).

Maiztasun handiz esaten zen garai batean, eta hortaz, arin samarra zen. Egun bakanago esaten da eta behar bada okerrago hartu ere bai. Beraz, erdimailakotzat jo genezake.

Aurrez aurre ere esaten da.

Kaka

Gauza gutxi, eskasa, deus ere balio ez duena.

Haurrei esaten zaienean arina da, eta badu xalotasunik franko ere. Jende larriari esaten zaionean, berriz, mesprezu handikoa da.

Ik, ik zer dok esatekoa, demonio kaka! Emane it lepondoko at! Garbittuko dazkit nek zoldak

‘Hik, hik zer duk esatekoa, demonio kaka! Emanen diat lepondoko bat! Garbituko ditiat nik zoldak’

Arin antza dela esanen dugu.

Kakero, kakerie ‘kakeria’, **kakerittu** ‘kakeritu’

Hirurak ere haurren artean maiz erabiltzen dira burla egiteko; gehiena *kakero*. Haurrekin maiz erabiltzen diren hauekin gertatzen ohi den gisan, askoz ere gogorrakoak izaten dira jende larriaren artean erabiltzen direnean. Ez ditugu aurrekoaren azpisail berean paratu, hura baino gazitoagoak direlako hauek.

Azpirotz, 1963: 325

KAKERI. Excremento licuoso.

Leitzan izan zen alkate bat *kakeri* izengoiti zuena. Behin ezkurrar bat mozkortuta zihoala erori eta mina hartu omen zuen. Leitzako lagun bat bisitara joan eta elkarrizketa hau izan omen zuten:

–*Au kakerie!* –*Leitzarrak esan zion mina hartu zuen moduagatik.*

–*Ez kakerie leitzen duzuu!*²⁴ –*ezkurrarrak erantzun.*

Erdimailakoak dira.

Katubusti, ollobusti ‘oilobusti’

Azienda hauek egoera horretan ageri duten itxura eskasa eta ezdeusa adierazi nahi lukete. Umilazio handi samarra da halakorik esatea hartzailearentzat.

Ollobusti ezezea! Ezakela itzerdi geyo san ausapaye berotzea nai ezpak
‘Oilo busti ezereza! Ez ezaala hitz erdi gehiago esan, ahosapaia berotzea nahi ez baduk’

Gogor samarrak dira.

Kirten

Ergela, adimenik gabea.

Oi kirtena berrize oi! Orrek itteko eztok izuarrie ez!

‘Hori kirtena berriz ere hori! Horrek egiteko ez duk izugarria ez!’

Arin antza da. Aurrez aurre ere esaten da.

Txatxu

Ezdeusa, eskasa. *Txatxutu* ere egiten da egoera horretara iristen dena.

Koko zitala, txatxua! (Orixe, 1972: 451).

Arin antza da. Aurrez aurre ere esaten da.

²⁴ *Duzu* ‘duzue’.

4.5. Gorroto eta amorrazioa adierazten dutenak

Gaizkijyao ‘gaizkijaiio’, *gaizkiazi* ‘gaizkihazi’, *eskertxarreko* ‘eskertxarreko’

Hiruek ere gaztelaniazko ordainen esanahi bera dute; haien kalkoak dirudite.

Gaizkiyayo da hiruetan gogorrena. Ia beti bere mailako edo altuagoko irainekin batera agertzen da. Maila gogorrekoa dela esan genezake. Gutxitan esaten da aurrez aurre.

Gaizkiyayo, putakume alue

Gaizkiazi eta *eskertxareko* heziketa txarrekotzat jotzen direnei esateko erabiltzen dira.

Alako mesedea in da ez tik diosalik e itten gaizkiazi, eskertxarreko nazkaarri orrek!

‘Halako mesedea egin eta ez dik diosalarik ere egiten gaizkiazi, eskertxarreko nazkagarri horrek!’

Erdimailakoak dira. Aurrez aurre ere esaten dira.

Erkittu ‘erkitu’

OEH

Debilitar(se), extenuar(se), disminuir enflaquecer.

Hiztegi honek dakarren esanahia aintzat hartuta, arina badirudi ere, oso bestelako maila hartzen du hizkera honetan: gogorra da eta haserrealdi handietan amorru galanta azaldu nahi denean esaten da.

Demono erkittue! Naigo nitek lepoa autsiko balo!

‘Demonio erkitua! Nahiago niake lepoa hautsiko balu!’

Aurrez aurre ere esaten da. Gogor samarra da.

Kadentzerrikume ‘kadentzerrikume’

Azkue, 1984

Secundina o membrana que contiene el feto del animal. 2ª (B,...), gurripato, último cerdito de la camada; culot, dernier porc de la portée.

Maila gogorrekoa da, norbait gogotik gorrotatzen denean esaten da. Ez da eskuarki aurrez aurre esaten.

Kadentzerrikumea berriz oi! Inon dien gaitzik txarrenak arrapatuko al tto alu orrek!

‘Kadentzerrikumea berriz hori! Inon diren gaitzik txarrenak harrapatuko ahal ditu alu horrek!’

Kebratu

Gaztelaniaz, besteak beste, pertsona herniatua ere esan nahi du. Hizkera honetan zerrikume herniatua esan nahi du, edo bederen adiera hori nagusitu zaio. Beraz, pertsona bati halakorik deitzen zaionean gorroto eta amorru handiak eraginda izaten da.

Kabron kebratu orren lana izaan da bai!

‘Kabroi kebratu horren lana izanen da bai!’

Maila gogorrekoa da. Eskuarki ez da aurrez aurre esaten.

Ma(d)arikatu

Alu-ren paretsukoa da; alabaina, ez du haren estigma, eta beraz, jende mota guztiak erabiltzen du. Erabilera handikoa da, baina, handiagokoa izan da gure aurreko gizaldikoen solasean.

Apokalipsi orrek beldur ematen zidan, andik ez baititeke itzik kendu, ez erauntsi, madarikatu aundien azpian (Orixe, 1987: 188).

Maila arinekoa izaten da eskuarki. Aurrez aurre ere esaten da.

Nazkaarri ‘nazkagarri’, *nazkante*

Nazkaarri-k pertsona arrunt zikina adierazten du; izan liteke itxuraz edo izaeraz.

Au nazkaarrie! Zizte-k muki zikin oik!

‘Hau nazkagarria! Ziztu itzak muki zikin horiek!’

Nazkante, beti zikinkerietan, edo beti lizunkerietan; beti bestez gaizki esanka, edo isiltzen ez den hitzontzi ikaragarria... azken buruan aspertu eta nazkatzen duen pertsonari esaten zaio.

Joesus! Gizona bai nazkantea motel! Beti kontu berakin!

‘Jesus! Gizona bai nazkantea motel! Beti kontu berarekin!’

Arin samarrak dira. Aurrez aurre ere esaten dira.

Putakume, putaseme, kabron

Gaztelaniazko esanahi bera dute.

Mailari dagokionez, *putakume* eta *putaseme* beti gogorrak dira; *kabrona* berriz, testuinguruaren arabera maila arinagokoa edo gogorragokoa izan daiteke.

Putakume eta *putaseme* aurrez aurre esaten direnean istulu gogorren aurrekari izaten dira.

Sasiko, sasikume

Sinonimoak izanagatik, erabilerari dagokionez, gogorragoa da *sasikume*. *Sasiko*-ren erabilera, hitzak berez duen esanahiari estuago lotzen zaio; *sasikume*, berriz, irain hutsatako erabiltzen da.

Ez aiz euskotarra, sasikume ori (Orixe, 1972: 467).

Ez dira arruntean aurrez aurre esaten.

Traidore

Erderatik ekarri irain honek jatorrizko hizkuntzan duen zentzuari eusten dio. Beraz, gogorra da.

Traidore earra da oi!

‘Traidore ederra da hori!’

Aurrez aurre ere esaten da.

Zerri, zerrickiton, zerriurde ‘zerri urde’

Zerri erabilera zabalekoa da, eta maila guziak hartzen dituena. Honen bestez, esan genezake adiskidetasunezko solasetik amorru eta gorroto handirainoko mailaraino iragotzen dela.

Zerrie aiz keo e! Oañ e meezi ez dun astoak bai, bi pentsu!

‘Zerria haiz gero e! Orain ere merezi ez duen astoak bai, bi pentsu!’

Zerri traidorea! Ama re salduko likek zerriurde orrek!

‘Zerri traidorea! Ama ere salduko liake zerriurde horrek!’

Zerrickiton, aldaera samurra da, arina; aurrez aurre asko erabiltzen dena.

Zerriurde irain gogorra da, eta gisa horretan baizik ez da erabiltzen.

6. GAUR EGUN IA ERABILTZEN EZ DIREN BIRAOAK

Azpirotzen bi artikuluetan aurkitu ditugu egun galdutako jo genitzakeenak, edo behinik behin erabiltzen ez direnak, nahiz eta baten bat oraindik ere

jendearen gogoamenean izan. Hark emandako definizioari eta adibideei lotuko gatzazkie.

Irispobe

Ambicioso. *Gizon irispobea da ori* (Azpirotz, 1963: 324).

Sakats

Revoltoso (Ibidem: 330).

Txoatil

Persona de temperamento un tanto alocado (Ibidem: 331).

Utike

Norbait bidaltzeko hitz berezia.

Vete de ahí! (Azpirotz, 1967: 22).

BIBLIOGRAFIA

Bi sailetan banatuta agertuko da: 1) Plazaola aldizkaritik hartutako artikuluei dagokiena; 2) beste gainerako bibliografia.

Plazaola aldizkaria Leitzako Udalak eta Aurrera K.E.-ak argitaratzen dute

ASTAITZ (1985), “Gazi gezak”, *Plazaola*.

– (1987), “Gazi gezak”, *Plazaola*.

– (1990), “Ateraldiak”, *Plazaola*.

– (1995), “Ateraldiak”, *Plazaola*.

– (2002a), “Artoak eta garie eta errotak itxik”, *Plazaola*.

– (2002b), “Ateraldiak”, *Plazaola*.

BIXENTE (1986), “Leizako gorabeherak”, *Plazaola*.

FRAXKE (1985), “Burugabeak... zapela beharrik ez”, *Plazaola*.

EL, LA, LO EXMO... (1985), “Bai, aitzintxoan atea dok ikastolako tabernatik”, *Plazaola*.

INAUTERIETAKO ANTOLATZAILEAK (1986), *Iñauterietako Plazaola*.

LEITZAR BAT (2001), “Euskara berriz arazoa, hara!”, *Plazaola*.

LEITZAKO MARMARI EUSKARA TALDEA (2000), “Euskaldune al zaa?...”, *Plazaola*.

PER (2000), “Bertso berriak”, *Plazaola*.

SASILARROSA (1998), “Leitze, Leize eta beste kontu batzuk”, *Plazaola*.

SASIZITZULARI BAT (1986), “Migel Antonio Sagastibeltza ‘Pastain’”, *Iñauterietako Plazaola*.

2) Beste gainerako bibliografia

AGIRRE, Tx. (1966), *Garoa*, Arantzazuko Frantziskotar argitaldaria, Oñati.

– (1995), *Kresala*, Elkarlanean, Donostia.

AZKUE, R. (1969), *Morfología vasca*, 3 liburuki; La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.

– (1984) [1969], *Diccionario Vasco-español-francés*, Euskaltzaindia, Bilbo.

AZPIROZ, J. M. (1963-1964), “Azkue jaunaren iztegia osatzeko Naparroako Leitzen bildutako itz-bilduma”, *Euskera*, VIII-IX, 317-335.

– (1967), “Azkue jaunaren iztegia osatzeko Naparroako Leitzen bildutako itz-bilduma”, *Euskera*, XII, 5-24.

EUSKALTZAINDIA (1985), *Euskal Gramatika Lehen Urratsak I*, Bilbo.

– (1990), *Euskal Gramatika Lehen Urratsak III*, Bilbo.

– (1991), *Hitz-Elkarketa I*, Bilbo.

GÓMEZ, J. R. (2002), “El insulto en la interacción comunicativa”, *Oralia*, vol. 5, 103-132.

KINTANA, X. (1980), *Hiztegia bi mila*, Elkar, Bilbo.

LYONS, J. (1986), *Introducción a la gramática teórica*, Teide.

MENÉNDEZ PIDAL, R. (1904) [1989], *Manual de gramática histórica española*, Espasa-Calpe, Madril.

MITXELENA, L. & SARASOLA I. (1987-2005), *Diccionario General Vasco / Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo.

MOLINER, M. (1991), *Diccionario de uso del español*, 2 liburuki; Gredos, Madril.

- MÚGICA, P. (1973), *Diccionario castellano-vasco*, Mensajero, Bilbo.
- ORMAETXEA, N., "ORIXE" (1972), *Euskaldunak poema eta olerki guziak*, Auñamendi, Donostia.
- (1987), *Arrebarekin Quiton*, Ibaizabal.
- (1989), *Santa Kruz apaiza*, Erein.
- PERURENA, P. (1993), "Leitzako ziztulari atabaleroak", *Txistulari aldizkaria*, 153.
- (1996), *Leitzako errege-erreginak*, Euskaltzaindia–Bilbao-Bizkaia Kutxa, Bilbo.
- REAL ACADEMIA ESPAÑOLA (1992), *Diccionario de la lengua española*, Espasa Calpe, Madril.
- SEGURA, S. & ETXEBARRIA, J. M. (1996), *Del latín al euskara*, Universidad de Deusto, Bilbo.
- VILLASANTE, L. (1981), *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Editorial Franciscana, Oñati.

RESUMEN

Lenguaje expresivo de Leitza: maldiciones

En este trabajo hemos tratado de mostrar escuetamente toda la gama de insultos, juramentos y maldiciones que se dan en el habla de Leitza. El trabajo está dividido en las siguientes partes: 1) una pequeña introducción en la que se pretende dar cuenta de las características generales de este tipo de manifestaciones; 2) un resumido análisis de las características más específicas referidas al aspecto lingüístico, que tiene como último fin este trabajo, en la que se hace distinción entre las reglas gramaticales a las que están sujetas, por otra parte comunes a toda la lengua, y los tipos de recursos a los que más comúnmente acceden dentro de la misma gramática, para reforzarse y no perder vigencia; 3) en esta parte hacemos una clasificación de las diferentes expresiones de esta clase, basándonos en su significado y clasificándolas por niveles, desde las más violentas a las más débiles, según su fuerza expresiva. En este apartado se han distinguido dos grupos principales: los llamados juramentos sin un destinatario concreto y los insultos destinados a un receptor concreto.

Para terminar se da una pequeña lista de expresiones de este tipo que ya han dejado de usarse en este habla y recogidas fundamentalmente en los dos trabajos de Azpiroz, J. M., de 1963-1964 y 1967, que aparecen en la bibliografía.

LABURPENA

Leitzako hizkera adierazkorra: biraoak

Lan honetan Leitzako euskaran ohikoak diren irain-birao sailkapena laburra egin dugu. Lana honako atal hauetan banatu dugu: 1) sarreratxoa: atal honetan tankera honetako adierazpenen ezaugarri orokorrak azaltzen dira; 2) zehaztapen maila handiagoz, ezaugarri linguistikoan azterketa laburra erakusten da, gramatikaren atal guztien berri ematen dela eta, baita atal bakoitzak adierazpen modu hauetan duen eraginaren berri ere, nahiz eraikitzeko, nahiz indartzeko gisa honetako adierazpenak; 3) atal honetan adieran oinarritutako sailkapena egin da, adierazpenen gogortasun maila ere aintzat hartuta. Bi sail nagusi bereizi dira: hartzaille jakinik gabeko biraoak; hartzaille bati berariaz zuzendutako irainak.

Lanaren hondarrean, zerrendatxo bat egin dugu gaur egun hizkera honetan erabiltzen ez diren irain-biraoak hartuta. Zerrendatxo delakoa egiteko, oinarri hartu dugu 1963-1964ean eta 1967an J. M. Azpirotzek *Euskera* aldizkaria-ko egin lana.

RÉSUMÉ

Langage expressif de Leitza: malédictions biraoak

Dans ce travail, nous avons essayé de montrer de façon succincte toute la gamme d'insultes, jurons et malédictions que l'on trouve dans la langue parlée à Leitza. Le travail se compose des parties suivantes: 1) une petite introduction dans laquelle on cherche à informer sur les caractéristiques générales

de ce genre de manifestations; 2) une analyse résumée des caractéristiques les plus spécifiques relatives à l'aspect linguistique, dont ce travail est la dernière finalité, où l'on fait la différence entre les règles grammaticales que ces expressions doivent suivre, qui sont para ailleurs communes à toute la langue, et les types de ressources les plus fréquentes dans la grammaire même, pour les renforcer et permettre qu'elles soient toujours en vigueur, d'actualité; 3) dans cette partie on fait un classement des différentes expressions de ce type en partant de leur sens et en les classant par niveaux qui vont des plus violents jusqu'aux plus faibles, d'après leur force expressive. Dans cette partie on a fait la différence entre deux groupes principaux: les jurons qui n'ont pas un destinataire concret et les insultes qui ont un destinataire concret.

Pour finir on donne une petite liste d'expressions de ce genre qui ne s'utilisent plus dans cette langue et qui sont essentiellement recueillies dans les deux travaux de Azpiroz, J.M. de 1963-1964 et 1967, qui se trouvent dans la bibliographie.

ABSTRACT

Expressive language from Leitza: curses

In this article, we have tried to show, albeit briefly, the entire range of insults, oaths and curses used in the speech from Leitza. The work is divided into the following parts: 1) a short introduction which aims to give an account of the general characteristics of this type of manifestation; 2) a brief analysis of more specific characteristics regarding the linguistic aspect, the ultimate aim of this work, in which a distinction is made between the grammatical rules to which these expressions are subject, at the same time common to the entire language, and the types of resource most commonly used within grammar itself, which reinforce them and mean they do not lose validity, currency; 3) in this part, there is a classification of the different expressions of this kind, based on their meaning and classifying them by degree, from the harshest and the weakest in terms of expressive strength. Two main groups have been distinguished in this section: the so-called oaths without a specific target and insults directed at a specific person.

Finally, there is a short list of expressions of this kind which are no longer used in this speech, fundamentally taken from the two works by Azpiroz, J. M., 1963-1964 and 1967, which appear in the bibliography.